

Arrasate P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubalkortza / 2003ko irailaren 26a / 643. zenbakia



EUSKAL HERRIKO TRONBOI LAUKOTEA, GUREAN

Arrasateko hiru musikarik eta beste lagun batek
tronboi kontzertua egingo dute
Amaia Udal Antzokian

ORAIN ETA HEMEN: GURASO ESKOLAK/8 • KIROLA: ARRASATE OINTXE SASKIBALOI TALDEA/11

AZALA: ALEX AZKARATE

OSASUN GIDA/2

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behea. ezk. 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A 943 77 05 57

ENTZUMEN ZENTRUA

- GAES Otorala lizentziaduna 18 943 71 27 93

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 943 77 00 40

FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEIA Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 943 77 14 72

KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kalea, 22-3. eskuma 943 79 92 83

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ... 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 19-1 Ezk 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA Zerkaosteta, 19 behea 943 79 71 90
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde 16- 1.-Esk. 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzezino, 6 943 79 25 98
- MULTIOPTICAS LARRAÑAGA (Optika, Optometria eta kontaktologia) J. Carlos Guerra 1 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEdia Kontzezino, 2 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 659 58 66 89

PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kalea 54, behea eskuma 943 79 97 46

PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 943 79 88 16

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56. 943 79 44 22

KALEINKESTA/ Ze pentsau jatzu Julio Medemen pelikuliek sortu dauen polimikie?



IKER VITORIA
Langillie



MARI MAR AREVALO
Langillie



JOSE MIGUEL GONZALEZ
Langillie



DAVID BELATEGI
Ikaslie



GURUTZE AGIRRE
Ikaslie



ARTURO NOGUEIRAS
Langillie

Argi dau batzuk polemikie sortzeko aitzakixak topetan ibiltten diela. Irakurri doten arabera, pelikuliek oso kritika ona euki dau, eta ez dau polemikarik sortzeko inungo arrazoirik.

Pelikulie ikusi aurretik jentiek kritikau egin dau, eta horrek esan gure dau batzuk aurreiritzi haundi xe daukiela. Nik ez dot pelikulie ikusi, eta ikusi arte ez dot ezer esango.

Niri oso txarto pentsau jat. Pelikulie ez dot ikusi, baina irakurri dotenan arabera, oso kritika ona euki dau, eta ikusliek bost miñutu egon zien txaloka. Argi dau polemika bille juen diela.

Polemika tonto samarra pentsau jat: pelikulan agertu gura izan ez dauenak die pelikulan neutraltasunik eza kritikau dauenak. Argi dau hamen be politikiek dana zikindu dauela.

Polemika hori jokoz kanpo dauela pentsetan dot, ez daukola bape zentzurik. Irakurri dittudan kritiken arabera, uste dot pelikuliek hamengo errealitate oso ondo erakusten dauela.

Beti gabitz kantu berakin, eta hau beste adibide bat da. Euskaldun usaine daukon edozeren kontra egitten daue, eta oin be hori pasau da. Fundamento bariko polemikie izen da.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK BIDEA, EGOERA TXARREAN Irakurle batek aditzera eman digunez, Muxibartik Gorostitzara doan bidea egoera txarrean dago. Esaterako, gauez ez dira kale-argi guztiak pizten. Horrez gain, eta irakurleak horri ematen dio garrantzi handien, bide ondoan dagoen pareta txiki bat erdi jaustear dago. Irakurlea horren beldur da eta dagokionari bide horretan konponketak egiteko eskatu dio.

ETABARRUAN...

KIROLA /10	KULTURA /14	KULTURA /15
Omenaldi jendetsua	'Mi Suicidio' antzezlan	Ekon taldeak agur esango du
Arrasate Errugbi Taldeak omenaldi polita egin zion zapatuan Mikel Biteri gazte mondragoetarrari.	Domekan Tanttaka antzerki taldeak <i>Mi Suicidio</i> ikuskizuna eskainiko du Amaia antzokian.	Arrasateko Ekon musika taldeak agur esango die eszenatokiei. Taldeak bederatziru egin ditu.

ASTEKO DATUA

300

KILO BUZKANTZA EGITEN DITUZTE GARAGARTZAN

Urtero Garagartzako San Migel jaietarako 300 kilo buzkantza egiten dituzte, baita jan ere. Azken hamazortzi urteotan Jose Ramon Otamendik eta Manuel Agirreurretak egin dute lan hori.

BESTE EKESANA

“ Debagoieneko garraio publikoaren egoera oso kaskarra da (...). 1967an trena kendu zutenetik, ez udalteekek ezta Aldundiak ez dute arazo hori konpondu. Gainera, arazo horrek pentsiodunei eta erretiratuei zuzenean kalte handia egiten die. Garraioa erabiltzeko ez dute inolako dirulaguntzarik jasotzen. Beraz, Gipuzkoako beste eskualdeetakoekin alderatuz, diskriminatuta daude. (...) Aldundiari hainbeste diru ematen dion eskualde industrial honek halako zerbitzu publiko eskasa edukitzea tristea da benetan (...). Ibarrean tranbia ipini artean, Eusko Tren enpresako autobusak ipini beharko lituzkete. Horretarako, Aldundiak Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailarekin hitzarmena egin beharko du”

MANUEL URIBE
‘EL DIARIO VASCO’/03-09-20

HERRITARREN BERBAK/ Asier Zubizarreta



Zaborra

Berba egitera noa zaborraz, barkatu afaltzen ari bazara. Ze badu zaborrak bere enkantua; gaueko osteratxo ilargiaren argitan, basura poltsak eskuetan eta etxeko zapatilak oinetan, zaborontzien kromatismo naif-a, zabor-kamioien erakustaldi errobotikoa, Garbi Bizkaiako txakurtxo xinpatikoa... Bada zaborraren poetika muturrera eramaten dakienik, lantzean behin egunkarietan eta telebistako albistegietan agertzen dira, ez dakit nongo herritan ez dakit zenbat tona zabor etxean pilatu duten teilape aldrebestutako gizasemeak. Hondar, kartoi eta kolonpote bildumagile amorratuak dira, labemozorroen zeruan jaungoiko eta auzokoen berriketetan demonino. Pertsonaia bitxiak, portaleko bileretara nekez agertuko dira, aspaldi amatatu zitzairen elkarbizitzarako sena. Eta komuneko kaka-metak sabaia ferekatzen duen egun berbere-

an-barkatu bazkaltzen ari bazara- udaltzainak sartu ohi dira juezaren ordena esku batean, surtziloetan bestea. Orain basurazalea, sukalde zuloan ezkutatuta, udal-langileek etxea nola husten dioten begira dago ateko zirrikitutik, izua begietan, ezin ulertuz horrenbeste zalaparta eta astrapala. Psikopatia xelebrea. Pilaketa-aren apoteosia, metatze basatia, ezereza uxatzeko metodo eroa, gogorra da bizitzan aurrera egitea zeri heldu eduki gabe, bada ere” zaborra besterik ez bada ere. Norbera puzteko modu ergelagorik, gizalegea zakarrontzian utzita, hurkoa kontutan hartu barik, ustela eta kiratsa zoko guztietara zabaldu arte. Cancun-en bildu berri dira Munduko Merkataritza Era-kundeko kideak. Hitz egin dute munduaren diren handiki eta aberatsen izenean. Erabaki ei dute auzotarren onerako. Nago ez ote den kakatza honezkeru sabaira heldu.

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 26
Ruiz. Maala 31 943 79 14 09

ZAPATUA, 27
Español. Araba etorb. 17..... 943 79 18 65

DOMEKA, 28
Azkoaga. Ferrerías 1..... 943 79 15 15

ASTELEHENA, 29
Azkoaga. Iturriotz..... 943 79 79 99

MARTITZENA, 30
Corcuera. Maisu Aranbarri 1 .. 943 79 22 26

EGUAZTENA, 1
Zabala. Zarugalde 42..... 943 77 16 30

EGUENA, 2
Ruiz. Maala 31 943 79 14 09

EGUBAKOITZA, 3
Español. Araba etorb. 17 943 79 18 65

TELEFONO JAKINGARRIAK

ERIETXEAK
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Igalatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

LARRIALDIK
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

ANBULATORIOAK
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelenetik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan... egun osoa

Arrasate
Astelenetik egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara

- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak 943 03 53 11
- Ikuskatzailea 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

ANBULANTZIAK
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

ERTZAINZA
Arrasate 943 79 71 99

SUHILTZAILERAK
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

MATXURAK
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44

GARRAIOAK
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza ... 943 79 81 57

MONTERRON LIBURUTEGIA
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	San Andres eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	Santa Teresa eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) Santa Marinako eliza Jai egun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz) Domeka 12:00 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	

OHARRAK

GARAGARTZAKO JAIK
Gaurtik, egubakoitza, domekara arte San Migelak ospatuko dituzte Garagartzan. Bola Txapelketa, dantzaldiak, bertsolariak, irrati bidez gidatutako autoen txapelketa, meza eta buzkantzak izango dituzte, besteak beste.

AUTODETERMINAZIOA
Mondragoetarrak taldeak autodeterminazioaren gaineko berbaldiak antolatu ditu. Urriaren 8an, eguaztana, Pedro Albitek *Autodeterminazioa eta inmigrazioa* berbaldia egingo du, 19:30ean, Monterronen.

ZERAMIKA IKASTAROA
Loixe zeramika elkarteak eta Gazte Bulegoak zeramika ikastaroa antolatu dute urritik ekainera. Izena urriaren 3a baino lehen eman Gazte Bulegoan.

TXATXIARTISTAK TALDEA
Txatxilipurdi 9 eta 10 urte arteko gaztetxoek bila dabil *Txatxiartistak* antzerki talde berria osatzeko. Entseguak eguenetan egingo dituzte, 18:30etik 20:00etara. Sen artistikoa garatu gura baduzu, izena eman lehenbailehen Txatxilipurdin. Urriaren 16an aurkeztuko dute taldea.

AEDren AGENDA

ZAHAR BERRI
Zahar Berrin euskaldun berriak eta euskaldun zaharrak behar dituzte elkarri euskara praktikatzen laguntzeko. Jo AEDra izena ematera.

'BERRIA'-REN AKZIOAK
Berria egunkariaren akzioak oraindik salgai daude AEDn. Jo AEDra bulego orduetan, goizez edo arratsaldez.

URBANOEN ORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erquin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erquin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Elbarriek bono-taxiaz baliatzeko aukera

Garraio publikoez ezin balia daitzkeen elbarriendako, Arrasaten eta herriz herri ibiltzeko bono-taxia aukeran ipini zuten. Bonoa udaletxean eska zitezkeen. Laguntzak hainbat mailatakoak ziren. Baldintza batzuk bete behar zituzten, eta eskaera guztiak ez zituzten onartu.




BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Tartania"

Ibilgailu zahar eta destartatua, autobusa batik bat. —*Elgetako "Osintxu"n tartanan joate giñan txikittan Arantzazura.*



ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Azken urteotako txakolin onena

Bedoñan eta Elorrioren inoiz baino lehenago jaso dute txakolina egiteko mahatsa. Udan egin duen beroarekin, oso kalitate oneko mahatsa bildu dute. Felix Mari Etxagibel eta Mikel Irizarrekin aritu gara gai horren gainean. Lehenak Bedoñan ditu mahats sailak; bigarrenak, Elorrioren. Elkarrizketa horiek zapatuan eta domekan, 11:00etan, errepikatuko ditugu. Baita udazkeneko modaren gainean Sergio Hernando eta Maider Arriaranekin izandakoa ere.

Martitzenean alkatea Arrasate Irratian

Inazio Lakuntza herriko alkatea izango da datorren martitzenean Arrasate Irratian. 09:30etik aurrera hainbat gairen gainean galdetuko diogu alkateari. Era berean, datorren astean luze berba egingo dugu Maritxu Kajoi jaiaren gainean. Urtero moduan, gainera, txikiteroen jaiaren gaineko saio berezia egingo dugu udaletxetik zuzen-zuzenean. Beraz, kalera irteteko asmorik ez baduzu edo berandu ari bazara, piztu herriko irratia.

HAUGIROA!

MINIMOA Eguaztana, 17	9 °C
MAXIMOA Eguaztana, 17	33 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	9,3 L
	Max. Min. Euria
Eguaztana, 17	33 °C 9 °C — l/m²
Eguena, 18	32 °C 10 °C — l/m²
Egubakoitza, 19	32 °C 10 °C — l/m²
Zapatua, 20	32 °C 12 °C — l/m²
Domeka, 21	32 °C 13 °C — l/m²
Astelehena, 22	27 °C 15 °C 5,2 l/m²
Martitzena, 23	18 °C 15 °C 4,1 l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA

09:00-11:00 **UDA GIROAN Albisteak.**
Elkarrizketak. Hondartzen, igerilekuen eta urtegien egoera. Eguraldi iragarpena. Agenda.

11:05 **Musika.**

12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**

13:00 **Euskadi Irratiko albistegi.**

14:00 **UDA GIROAN** errepikapena.

19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**

ZAPATUA

11:00 **Asteko elkarrizketak:** Ines Aldai zinegotziari elkarrizketa; Mikel Irizar eta Felix Mari Etxagibel txakolinaz; Sergio Hernando eta Maider Arriaran udazkeneko modaz; Edurne Pasaban, emakumea eta mendiaz...

DOMEKA

11:00 **Asteko elkarrizketak**

ASTEABIHITZETAN

MUko ikasturte berriaren inaugurazioa

Joan den asteke eguenean, hilak 18, Mondragon Unibertsitateko ikasturte berriaren irekiera ekitaldia egin zuten.

Inaugurazio ekitaldian, besteak beste, Juan Jose Ibarretxe lehendakaria, Anjeles Iztueta Hezkuntza sailburua eta Inaxio Oliveri MUko errektorea izan ziren. Ekitaldia, urtero moduan, Amaia Udal Antzokian egin zuten, eta Juan Jose Ibarretxek ireki zuen ekitaldia. Gero, hainbat gonbidatuk berbaldi saioak egin zituzten.

Autodeterminazioa hizpide

Eguaztenean, Mondragoetarrak taldeak autodeterminazioaren gainean antolatutako hitzaldien barruan, EHUKo irakasle Antxon Mendizabalek *Autodeterminazioa eta globalizazioa* gaia izan zuen abiapuntu. Guztira lau hitzaldi egingo dituzte, eta berbaldi horietan autodeterminazioaren gaineko hainbat eragile aztertuko dituzte.

Datorren eguaztenean ez da hitzaldirik izango. Hala, urriaren 8an, Pedro Albitek *Autodeterminación e inmigración* izeneko berbaldia egingo du; urriaren 15ean, Gabirez Ezkurdiaren eskutik *El sujeto de autodeterminación* berbaldia egongo da entzungai; azkenik, urriaren 22an, Miren Odriozolak *Autodeterminazioaren prozesua Euskal Herrian* gaia aztertuko du.

Hondakinak kudeatzeko kanpaina

Debagoieneko enpresa txikiek orain hobeto dakite sortzen dituzten hondakin arriskutsuak kudeatzeko zein aukera duten. Horretarako, Debagoieneko Mankomunitateak kanpaina bat egin du enpresa txikiekin, aukera horien berri emateko.

Ehun eta hogeita hiru enpresa txikiri eman diete hondakin arriskutsuak kudeatzeko duten aukeraren berri.



Eroskiren hitzaldiak Monterronen

Eroskiko Kontsumitzailearen Eskolak komunikatzeko trebetasunei buruzko hitzaldia egin zuen martitzenean Monterronen. Raquel Barnecilla psikologoak eguneroko arazoei aurre egiteko lagungarriak diren gaitasunen gainean egin zuen berba. Eguaztenean ere hitzaldia egin zuten.



USTEAKUSTE/Iker Barandiaran

Auto bariko hausnarketa

Dagoeneko joan da urteroko Auto Bariko Eguna. Euskal Herriko berrogeita hamarren bat herritan egin dute. Herritar batzuk kexatu diren arren, egun horretan oinezkoen mesederako egindako aldaketak ez dira hain handiak izan. Arrasaten behintzat ez.

Egun sinboliko horren gainean hainbat elkartetan esan dute ez duela ezertarako

balio. Egia da instituzioek urteko 364 egunetan autoei lehentasuna ematen dietela. Aurrekontu publikoetatik errepide eta autobide berriak eraikitzeko izugarritzko dirutzak gastatzen dituzte. Horrez gain, askotan esan ohi da lurralde antolaketa ez dela errepideen arabera egiten. Horren ordez, errepideak direla lurraldea antolatzaren dutenak.

Arrasaten, azkenengo urteotan, oinezkoen aldeko hainbat ekimen egin dituzte. Besteak beste, Gernika Oinezkoen Zumardia. Baina, seguru halako ekimen gehiago ere egin daitezkeela. Horien artean, bizikletendako bidegorriak bultzatzea, garraio publikoaren erabilera erraztea, eta beste batzuk.

Hor dago gakoa. Auto Bariko Eguna sinbolikotik haratago joatea, eta neurri baten autoari bizkarra emateko ohiturak bultzatzea.

ASTEKOIRUDIA



XABIER URZELAI

UDALTZAINEK JARDUN BEHAR IZAN ZUTEN AUTO BARIKO EGUNEAN GARIBAI ETORBIDEA ZAITZEN

Astelehenean Garibai etorbidea autoendako itxita egon zen, Maalatik Kontzezinoraino. Kontua da Garibai etorbidean autorik ez ibiltzeko hesiak jarzteaz gain, udaltzainek kalea zaintzen jardun behar izan zutela, badaezpada ere. Auto erabiltzaile askok ez zuten ekimen hori ondo hartu, eta udal-


tzain batek baino gehiagok protestak entzun behar izan zituen. Garibai etorbidea itxteaz gain, astelehenean autobus urbanoa debalde izan zen. Astelehenean 650 lagun inguruk erabiltzen dute autobusa. Auto Bariko Egunean, berriz, herri autobusak 1.752 erabiltzaile izan zituen. /X.U.

JADE
ILE APAINDEGIA

Maritxu Kajoi
egunerako makilatu eta orraztu
20 €tik aurrera

ZATOZI!

Maalako Errabala, 21-B
ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31

 **Gambrinus**
garagardotegia

- Menua:
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

Lilura
OIHALAK

Diseina ezazu Maritxutarako zure gustuko soinekoa. Esku-poltsak, eskularruak, galtzerdiak...

Zerkaosteta 5, behea.
ARRASATE. Tel.: 943 79 89 72

ELKARRIZKETA

URTZI MENDIZABAL/BIOLOGOA

“Arrasateko ekosistemek zein balio duten jakiteko premia handia zegoen”

IKER BARANDIARAN

Ibarreko bi biologok, Urtzi Mendizabal arrasatearrak eta Rosa Agirrebeña bergararrak, udalerriko landaretzaren gaineko azterketa egin dute. Informazio interesgarria batu dute, eta Udalak *Arrasateko Txoko Naturalak* izeneko liburua egitea proposatu zien. Bada, dagoeneko egin dute liburua, eta urriaren 13an aurkeztuko dute.

Zer dela eta erabaki zenuten azterketa hori egitea?


Rosa eta biok biologoak gara, eta ikusi genuen Arrasateko ekosistemen gainean informazio gutxi zegoela; merezi zuela ikustea Arrasateko ekosistemek zein maila duten, zein egoeratan dauden eta zein balio duten. Ekosistemak bi arlo nagusi dauzka: bata, fauna eta bestea, landaretza. Fauna aztertzea oso interesgarria izango litzateke, ekosistemen adierazle oso ona delako, baina hori egiteak lan handiagoa eskatzen du, eta guk landaretza hobeto ezagutzen dugu.

Azterketa hori egiterakoan, aurkikuntza garrantzitsurik egin duzue?

Batzuk bai. Aurkikuntza bitxiak egingo genituen susmoa genuen, baina ez da beti horrela izan. Udalerriko mendietan ibili gara, inguruak sakonki aztertzen... Adibidez, Udaltx inguruko goiko artadian landare komunitate handia aurkitzea espero genuen, baina ez zen horrela izan, arteak txiki samarrak direlako eta aniztasun biologiko txikiarekin agertzen direlako. Aldiz, Gara-gartzan dibertsitate eta aberatasun handia aurkitu dugu; udalerrian ia gelditzen ez diren zuhaitzen basoak daude. Horrez gain, Udalara bidean oso ekosistema bitxia aurkitu dugu: hemengo Atlantiko-Ozeaniko kliman aurkitzen ez diren altxor batzuk, hain zuzen ere.

Zer da garrantzitsuagoa, ohikoa ez den landare bat aurkitzea ala era askotako ekosistema batekin topo egitea?

Orokorrean espezie bitxiak ez dira aniztasun biologiko handiko guneak bezain garrantzitsuak, baina ekosistemari oso zerbitzu garrantzitsua egiten diote. Horiek desagertzen badira, egiten duten zerbitzua desagertu egingo da. Adibidez, astigarra desagertzen bada, haren barnean egoten den kakalardoak desagertu egingo da. Eta kakalardoak jaten dituzten hegaztiak gutxitu egingo dira. Horren ondorioz, beste intsektu batzuk gehitu egingo dira eta izurriteak izango dira.



Liburuaren egileetako bat, Urtzi Mendizabal, Udalara bidean dagoen abarizti eder baten.

“Lehen, zuhaitz bat moztuz gero bi landatzen ziren; gero eta gutxiago zaintzen dugu hori”

Bestalde, espezie asko batera agertzen direnean, landareak ekosistema propio bat ekoiztatzeko egoera onean egoten dira. Eta ekosistema horiek onura egiten digute gizakioi: oxigeno garbia ematen dute, ura garbitu egiten dute eta lurra emankorragoa da. Horregatik, aniztasun biologiko minimo bat edukitzea beharrezkoa da. Zoritxarrez, gero eta gutxiago zaintzen dugu. Lehen, Euskal Herrian zuhaitz bat moztuz gero, bi landatzen ziren.

Orduan, Arrasatek badu nahiko birrikarik?

Objektiboki zehatz-mehatz jakiteko azterketa bat egin behar litzateke, eta ez du inork egin.

“AHTk eta Eibar-Gasteiz autobideak naturan kalte izugarriak eragingo ditu”

Egindako neurketen arabera, badirudi oraindik birika minimoa badagoela. Hemengo basoek karbono dioxidoa irentsi eta oxigenoa ematen dute. Oraindik Udaltx inguruan, Elorregin, Murun... basoak geratzen dira. Beste faktore bat ere badago: pinuek oso hazkunde azkarra dute eta horiek ere karbono dioxidoa irensten dute. Hala ere, pinuak bigarren belaunaldian gutxiago haziko dira eta funtzio hori ez dute hain ondo beteko. Horrez gain, pinuak sartzeko baso-soilketa egiten dutenean, lurrari kalte handia egiten diote, eta emankortasuna kendu.

Epe laburrean hainbat

“Zehatz-mehatz ez bada ere, badirudi Arrasatek oraindik baduela baso kopuru minimoa”

azpiegitura egin gura dituzte. Zein eragin izango dute horiek udalerrian?

Kalte handia egingo diote naturari. Eibar-Gasteiz autobidearen lanek Osifia aldean obra-hondakindegia erraldoia ipiniko dute, eta basoak errekuperatzeko beharrezkoak diren lur emankorrak desagertu egingo dira. Gainera, Kurtze Txikin dauden txutxuprakak desagerrarazi egingo ditu. Dagoeneko kalte handiak egin dituzte Etxezarretako hariztian. Hango lur emankorrak kendu egin dituzte, eta faunari muga ipini diote. Horren ondorioz, ezin dute muga hori zeharkatu, eta ezin izango dira ugaltu.

Horrek landaretzan ere badu eragina, ezta?

Bai, horixe. Adibidez, Gernikako itsasadarrean errepidea egin zutenean, basurdeak ezin izan ziren beste aldekoekin harremanetan jarri. Gainera, basurdeek haritzak landatzen dituzte, ezkurak beste zona batzuetara sakabanatu eta lur azpian sartzen dituztelako.

Abiadura Handiko Trenak ere kalte egingo dio udalerriko naturari, ezta?

Bai, AHTk eragingo dituen kalteak izugarriak izango dira. Kobate aldean babestutako espezie bitxi bat dago, eihar frantseza, astigar berezi bat, eta hori desagertu egingo da. Horrez gain, AHTk Kobateko artadian zuloa egingo du, eta lan horiek egiteko hainbat pista egin beharko dituzte. Gainera, kutsadura handia eragingo du -nitrogeno oxidoa botako du-, kalte akustikoa ere eragingo du eta mendiarren erdian obra-hondakindegia erraldoiak egingo dituzte. Seguruenik hondakindegia horietako batzuk Gesalibar inguruan ipiniko dituzte, txutxupraka espezie babestua dagoen lekuan.

Bestalde, Garaia egitasmoak Garagartzako zelai-ekosisteman kalte handia eragingo du, udalerriko lur emankor gehienak handaude-eta.


Horren guztiaren aurrean, zer proposatzen duzu?

Halako azpiegiturak beharrezkoak badira, beste modu baten egin beharko litzukete, hainbeste kontzentratu barik. Natura eta ekosistemak babesteko politika zehatza behar da. Arrasatek kutsadura handia eragiten du, eta guk bizi-baldintza egokiari eusteko ingurumenari kalte txikiagoa egin behar diogu. Leintz Gatzagako pagadia babestuta dago, ura garbitzen duelako. Eta Urkuluko ura edaten dugu, Urkuluk oso ekosistema ona daukalako: basoak, zelaiak...

Gaitza izan da azterketako emaitzekin liburua egitea?

Tira! Azterketa zientifikoa zen: analisiak, ikerketa botanikoak, emaitzak... Tesi antzekoa zen, Udalak zein landaretza zegoen ikus zezan. Erabilgarria zen, baina ez zen oso irakurterraz. Metodologia alde batera utzita, informazio hori liburu baten egokitu dugu. Rosak eta biok egin dugu dena, eta Udalak finantzatu egin du.

Orain baditugu beste proiektu batzuk. Ekosistemen hazkundera lagundu gura diogu. Gainera, Rosa eta biok Basabelar elkartean gabilta; ingurumenaren alde egiten dugu lan.



Anbulatoriorako txandak goizez zein arratsaldean har daitezke, 08:00etatik 20:00etara.

OSASUNA/ Anbulatorioaren jakinarazpena

Hitzordua beharrezkoa da anbulatoriora joateko

UBANE MADERA

Anbulatorioko zerbitzuak modu zuzenean erabiltzeko aholkuak helarazi dizkigute anbulatoriotik. Gogorazi gura dute lehen mailako atentzioetarako hitzordua eskatu behar dela derrigor, eta hori goizez zein arratsaldean egin daitekeela.

Hirugarren urtez, Arrasateko anbulatorioak erabiltzaileei zuzendutako kanpaina abiarazi du. Hain zuzen ere, anbulatorio-ko zerbitzuak modu zuzenean erabiltzen erakusteko kanpaina da. Hala, eskuorri baten bitartez gogorazi dute lehen mailako atentzioetarako derrigorrezkoa dela alde aurretik txanda hartzea. Eta txanda hartzeko goizez zein arratsaldean dei daitekeela, 08:00etatik 20:00etara bitartean

astegunetan eta 09:00etatik 14:00etara bitartean zapatuetan.

Anbulatorioko arduradun Edurne Marañonek adierazi digunez, kontua da txanda hartzeko herritarren gehiengoak goizez bakarrik deitzeko ohitura duela. Ohitura hori aldatzeko kanpaina hirugarren urtez abiarazi arren, herritarrek goizez deitzen segitzen dute. Horren ondorioz, goizetan, askotan, telefonoa saturatu egiten da.

Hori ez gertatzeko, adibidez, medikuarengana bizpahiru egun barru joan behar izanez gero, Edurne Marañonek adierazi digu hobe dela arratsalderen baten deitzea, eta ez goizez.

Honako haxe da erabili beharreko telefonoa: 943 03 52 50.

Lehen mailako atentzioen barruan honako zerbitzu hauek eskaintzen ditu anbulatorioak: medikuntza orokorra, pediatria,

erizaintza (elektrokardiogramak, espirometriak eta analisiak egiteko), emagina, sendabideak egiteko gela eta nagusiendako eta gaztetxoendako dentista (gaztetxoendako Jaurlearitzaren PADI izeneko programa dute).

PROFESIONALAK

Zerbitzu horiek guztiak emateko, hamar mediku, hiru pediatra, hamabi erizain, zazpi administrari, emagin bat eta dentista bat dabilta lanean anbulatorioan. Zerbitzu gehienak (dentista eta emagina izan ezik) anbulatorio-ko behe solairuan eta aurreneko solairuan daude. Hortik gora, eskualde ospitaleak eskaintzen dituen kanpo kontsultak daude: traumatologia, dermatologia...

Eta, jakina, larrialdien kasuan eskualdeko ospitalera jo beharra dago. Honako haxe da telefonoa: 943 46 11 11.

LABUR

San Andres auzoan bidegorria egiteko baimena eskatuko du Udalak bigarrenkoz

Arrasateko Udalak berriro baimena eskatuko du San Andres auzoan bidegorria egiteko. Kontua da iaz Diputazioko Errepide Zuzendaritzak eskatutako baimena ukatu egin ziola Udalari. Errepide Zuzendaritzaren esanetan, bidegorria GI-627 errepidearen ondoran egin gura dute, eta horrek eragina izango luke errepide horren egonkortasunean.

Hori dela eta, Arrasateko Udalak dio bere ustez bidegorriak ez lukeela errepidean Diputazioak aipatzen duen eraginik; eta hala balitz, GI-627 saihebidetaren egonkortasuna bermatzeko beharrezko neurriak hartuko lituzketela. Gogorarazten du bidegorria egin gura duten lekuan oinezko asko ibiltzen dela pasean, orduko 100 bat oinezko. Horrela, bidegorriak oinezko horien segurtasuna bermatuko luke. Eta, horrekin batera, besteak beste, gogorarazten dio Diputazioari Eibar-Gasteiz autobidea dela-eta Diputazioak berak behin eta berriro aldarrikatu duela bailaran bidegorria egitea. Hortaz, horregatik guztiagatik eskatuko du berriro ere Arrasateko Udalak bidegorria egiteko baimena.



Garagartza jai giroan

Egubakoitzetik astelehenera San Migelak ospatuko dituzte Garagartzan. Besteak beste, egubakoitzean, gauerdian laminei eta Neanderthalgo gizakiei ongiatorria egingo diete. Zapatuan, eguerdian herri kirolak eta antzinako jolasak egingo dituzte; arratsaldean, 19:00ak arte ume-jokoak; 17:00etatik 19:00etara irrati bidez kontrolatutako autoak; 19:30ean bertso saioa eta bukatzeko dantzaldia. Domekan meza, dantza erakusketa eta auzo bazkaria izango dira; eta astelehenera, 19:00etan meza eta ostean huntxa. Egubakoitzean eta zapatuan, 19:00etan buzkantzak izango dira. /U.M.

BASATI TABERNA
PINTXUAK, BORATAK ETA TRAGUAK
TEL. 943 711769

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

Pando Errotuloak
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Tbilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erlebedun hizkiak

GIZARTEA/ Emakume Txokoa


Makina bat ekimen antolatu dute Emakume Txokoan

UBANE MADERA

Ateak zabaltzeaz gain, Emakume Txokoak datorren hiruhilera-ko egitasmoak erabakita dauzka. Oraingo astean aurkeztu dute egutegia prentsurrekoan. Joan den astean iragarritako ikastaroekin batera, egitarau bete-betea egin dute.

Udaleko Emakume Saileko teknikari Maite Barreñak eta sail bereko buru Joxe Etxeberriak jakinarazi zuten moduan, Emakume Txokoan, besteak beste, hitzaldiak izango dira. Herritarren kezka pizten duten gaiak lantzen ahaleginduko dira hitzaldiotan. Hala, urrian bi hitzaldi izango dira: bata datorren eguaztenean (urriak 1). Bikoteen legearen gainean jardungo du Elena Olaortua Aldarte aholkularitza elkarteko adituak; eta beste hitzaldia urriaren 24an izango da. Kasu horretan emakumearen eta osasunaren gainean egingo du berba Mari Luz Esteban hizlariak.

Horrez gain, diapositiba emanaldiak antolatuko dituzte. Kasu horretan asmoa da emakumezkoek zein gizonezkoek egin dituzten gauza bereziak gogora ekartzeko. Hala, urriaren 15ean, bi emakume Tibet eta Nepal aldera bizikletaz egindako bidaia landuko dute. Diapositiba emanaldia bezala, bideo-foruma ere izango da,



Abendura arteko ekimenak antolatu ditu Emakume Txokoak.

urriaren 22an. *Emakumea emakumearen kontra* gaia landuko da.

FEMINISMO ESKOLA

Bestalde, feminismoari duen garrantzia eman gura diote Emakume Txokoan, hark duen lekua eta izpiritua gorde. Helburu horrekin, hilean behin Feminismo Eskola egingo dute. Urriaren kasuan, eguaztenean izango da, hilaren 29an. Arantza Urkaregi feministak dinamizatuko du eskola hori. Emakumeek gizartearen duten parte-hartzea aztertuko dute.

Urriko ekimenekin bukatzeko, urriaren 31n *Las Punkis también lloran* antzezlanaren antzeztuko du Detritus taldeak.

Ekimen horiek guztiak 19:00etan izango dira. Ekimenetan euskararen eta gaztelaniaren arteko oreka lortzen ahalegindu dira.

AUTODEFENSA IKASTAROA

Bukatzeko, gogoratu beharra dago autodefensa ikastaroa ere izango dela egubakoitzetan eta zapatuetan. Urriaren 15a baino lehen eman beharra dago izena.



Autobus urbanoa gero eta gehiago erabiltzen da

UBANE MADERA

Urtetik urtera autobus urbanoa erabiltzen duten bidaiariaren kopurua handituz doa. Iazko datuak esku artean, irailean, urrian eta azaroan ibili da bidaiari gehien herri autobusean 2002an. Egunei begiratu gero, berriz, egubakoitzetan.

Leintz Garraioak enpresak hirugarren urtez neurtu ditu Arrasateko autobus urbanoaren emaitzak. Eta, 2002ko datuen arabera, pozik egoteko moduko emaitzak eskuratu dituzte. Izan ere, aurreikuspenen arabera, asko jota 185.000 bidaiari ibiliko zirela uste bazuten ere, zifra hori %5 gainditu dute, eta guztira, 194.306 bidaiari izan dituzte iazko jardunaldian.

Batez bestekoa eginez gero, 2002an, egunean 647 bidaiari ibili da autobus urbanoan. Autobus urbanoa erabiltzen hasi zenetik hona, 89 lagun gehiagok erabiltzen du egunero zerbitzu hori.

Bestelako datuei begiratu gero, abuztua izan da hiru urteotan bidaiari gutxien ibili den hilabetea. Hile oparoena, berriz, aldatu egin da urtero. Hala, aurreneko urtean uztaila izan zen onena; bigarren urtean, abendua; eta hirugarren honetan, urria, hain zuzen ere.

Egun berezien artean, nabarmentzekoa da iazko auto bariko egunean guztira 2.182 bidaiari ibili zela. Aurten moduan, iaz ere lau autobus ibili ziren egun hartan, maiztasun handiagoarekin; horietako bat Irandik eka-rritakoa.

BONOBUSA GEHIAGO ERABILTZEN DA

Era berean, datuek erakusten dute aurten bonobusaren erabilera handitu egin bada ere, Ongizate Sailak diruz laguntzen duen bonobusa ez dela espero bezain beste erabili. Edozelan ere, oraindik txartel arrunta da gehien erabiltzen dena: %57, hain zuzen. Bonobusa, berriz, %43 erabili zuten iaz.

GIZARTEA/ Guraso eskolak

Seme-alaben heziketan laguntzeko guraso eskolak

Beste urtebetez, guraso eskolak antolatu ditu Udalak. Hain zuzen ere, seme-alaben heziketan sortzen diren zailtasunak argitzeko, bideratzeko eta elkarbanatzeko gunea sortzea da guraso eskolen helburua; seme-alabekin modu positiboan jokatzeko, berba egite-

ko eta gozatzeko irizpideak eskaintzeko, hain justu ere.

0 eta 18 urte arteko seme-alabak dituztenei zuzendutako ekimena da. Seme-alaben adinaren arabera taldetan sailkatuko dituzte gurasoak eta talde bakoitzak gai zehatzak landuko ditu. Hala, tal-

de guztiak sexualitatea landuko dute; eta hortik aurrera, nagusienek drogen gaineko informazioa, anorexia, bulimia eta holako gaiak landuko dituzte. Guztira, zortzi saio izango dira, astero bat. Eta ordua eta eguna eskariaren arabera zehaztuko dute.

PROFESIONALEN LAGUNTZA

Guraso taldeen dinamika elkarte berezituaren esku egongo da: Garapen Proiektuak, Lahar, Udaleko Sexologia zerbitzuko adituak eta ACABEko (anorexiaren eta bulimiaren kontrako elkarte) adituak etorriko dira, hain zuzen ere.

Halako eskoletan parte hartzeko interesa dutenek urriaren 7a baino lehen eman behar dute izena. 943 79 09 00 telefonora deitu eta prebentzio teknikariak galdetu behar da horretarako; bestela, prebentzio@arrasate-mondragon.net helbidera mezu bat bidali.



ARTXIBOIA

0-18 urte bitarteko seme-alabak dituztenei zuzendutako eskolak dira.

LABUR

Kobaten egindako analisiek erakusten dute oraindik ere hauts larregi botatzen dutela



Azkenaldian moduan, Kobate harrobiaren jarduna aztertu eta 2003ko aurreneko sei hilabete emaitzak jaso ditu Udalak. Horien arabera, zaraten eta uren analisiek aztertu eta gero, emaitzak egokiak direla ikusi dute. Ez, ordea, hautsen analisiek. Horiek erakusten dute oraindik ere hauts larregi botatzen dutela Kobaten. Hala, hori konpontzeko neurriak areagotu beharko dituzte.

Kanpanzar harrobian kalitate atmosferikoa hobetu beharko dute, azterketaren arabera

Kanpanzar harrobiaren zaintza ere egin dute aurreneko sei hilabete honetan. Kasu horretan ere uren eta zaraten analisiek emaitza onak eman dituzte. Baina kalitate atmosferikoa ez da horren egokia; eta hori zuzentzeko neurriak hobetu egin beharko direla ondorioztatzen da azterketan.

Iturbide Egoitza berritzeko proiektua egiteko lana esleitu du Udalak oraingo astean

Iturbide Egoitza berritu egin behar dute. Hain zuzen, gaur egun dauden behar berrietara egokitze egin behar dituzte lanok. Besteak beste, egoitzako erabiltzaileen profila aldatu egin delako azken urteotan, eta orain, egoiliarren %80k besteekiko mendekotasuna dutelako. Hala, Gobernu batzordeak proiektua idazteko lanak Javier Egaña arkitektoari esleitu dizkio, 25.400 eurotan.




MAIDER ARRIARAN ARTIUM-EN

Maider Arriaran diseinugile arrasatearrak aurreko asteburuñ Gasteizko Artium museoan egin zen moda desfilean hartu zuen parte. Moda desfilea Gasteizko Merkataritza Elkarteak antolatu zuen. Desfileak egubakoitzean, zapatuan eta domekan izan ziren. Zapatuan diseinugile gazteen moda desfilea izan zen, eta Maider Arregik zazpi lan aurkeztu zituen. Maiderren esanetan, kalean erabiltzeko moduko arropak diseinatzen ditu.



ARRASATEKO UMEAK GAZTE- GAZTETATIK HEZTEKO, JOLASAK

Astelehena Auto Bariko Eguna izan zen, eta zapatuan, aurrerapen modura, Seber Altuben gaztetxoendako puzgarriak izan ziren. Eguerdian partean gaztetxo asko izan ziren gaztelu puzgarrietan jolasean. Horrez gain, 12:30ean kalejira egin zuten eta 17:00etan txotxongilo ikuskizuna izan zen. Azken batean, aldarrikapena egiteko modu egokia aurkitu zuten: ikusgarria, koloreduna eta bizia.



SEI KILO AMUARRAIN AFALTZEKO!

Argazkian azaltzen den koadrila horrek txango polita egin zuen irailaren 13an. Goizean Gatzagako museoan izan ziren, eta bazkaltzera Santa Kurutze Kanpezura (Araba) joan ziren. Arratsal-

de partean arrantzan egin zuten. Guztiek, baina, ez zuten arrantzarako kanaberarik, eta behar ere ez, txikienek eskuekin hartu zituzten-eta hainbat amuarrain. Harrapatutako arrainak Bedoñan jan zituzten.

GIRO EZIN HOBEA BESAIDEN OROITZAPEN EGUNEAN

Domekan Besaideko Oroitzapen Eguna ospatu zuten, eta eguraldia lagun, ehunka lagun elkartu ziren Besaiden. Mendi elkarteetako lagunek antolatutako egitarauak goiz pasa ederra egiteko aukera eskaintzen Besaidera hurbildutako lagunei. Meza, euskal dantzak, txalaparta, euskal musika, herri kirolak, txorizoa, salda... Eta hori guztiari, mendian hil diren mendizareen omenez.



ERRUGBIA

Lagun asko elkartu ziren zapatuan Garagartzan, Mikel Biteriren omenaldian

Arrasate Errugbi Taldeko lagunak omenaldi beroa egin zioten Saharan auto istripuan hil zen Mikel Biteri gazteari



XABIER URZELAI

Mikelen anaiak eta arrebak jaso zuten Arrasate Errugbi Taldekoek egindako oroigarria.



OHIAN VEGA

Gazteak sasoian dauden arren, nagusiek errugbian egitea ez zaiela ahaztu erakutsi zuten.

XABIER URZELAI

Arrasate Errugbi Taldeak omenaldi polita egin zion zapatu goizean Mikel Biteriri. Arrasateko taldeko jokalaria izan zen Mikel, eta lagunak argi zuten lagunarteko partidua bat jokatzeko izango zela Zin omentzeko modu politena.

Zapatu goizean lagunarteko errugbi partidua berezia jokatu zuten Garagartzan. Abuztuan Saharan hil zen Mikel Biteri Zin arrasatear gaztea omentzeko norgehiagoka egin zuten. Egungo

Arrasate errugbi taldea osatzen duten jokalariek beterranoen eta Mikelen taldekide izan zirenen kontra jokatu zuten. Mikel Biteriren lagun eta senitarteko asko elkartu ziren Garagartzako errugbi zelaietan, eta Zin gogoan izateaz gain, lagunarteko partidua ez gozatzeko aukera izan zuten.

ASPALDIKO LAGUNAK ELKARREKIN

Aspaldian elkar ikusi gabe zuden lagun asko elkartu ziren Garagartzan zapatuan. Lehengo sasoiak gogora ekarriz, praktika motzak eta kamiseta jantzi eta errugbian jokatu zuten.

Partidu hasieran minutu bateko isilunea egin zuten, eta atsedenaldian, Arrasate Errugbi Taldeak omenaldiko oroigarria eman zien Mikel Biteriren senitartekoei. Oparien artean, Mikelek jokatzeko garaiko taldearen argazkia eta bere zenbakia zuten errugbi kamiseta eman zieten senideei.

Lagunarteko partiduan markagailua gutxienez baten ere, partidua entretengarria jokatu zuten gazteek eta nagusiek. Normala den moduan, gazteak nagusitu ziren (12-5). Hala ere, beterranoek eta Mikelekin jokatu

zuten lagunak erakutsi zuten oraindik ez zaiela errugbian egitea ahaztu.

MIKEL OMENTZEKO MODU ONENA

Lagunarteko partidua jokatu eta gero, GOITBko lankideek beterranoen taldean jokatu zuten Igor Martinezekin berba egiteko aukera izan zuten: "Oso omenaldi polita izan da; jende asko elkartu gara, eta oso hunkigarria izan da. Mikelek hainbat urte egin zituen errugbian jokatzeko, eta bagenekien errugbiko lagunarteko partidua bat jokatzeko zela hura omentzeko modu onena".

Horrez gain, partidua gainera ere egin zuten berba Igor Martinezek: "Norgehiagoka polita izan da. Arrasateko taldean oso jokalaria gazteak daude, sasoi-sasoian, gainera. Gutako asko aspaldi geunden errugbian jokatu gabe, eta hori igarri egin dugu. Horrez gain, aspaldian ikusi ez ditudan lagunak ikusi ditut, eta hori ere eskertzekoa izan da".

Norgehiagokaren ostean bazkaria egin zuten, eta gauean Arrasateko gaztetxearen kontzertua izan zen Mikel Biteriren, Jon Zabalen eta Aritz Etxeberria Txiri-ren omenez.

Mertxe Valdivieso epaile lanetan izan zen Lekeitioko Txakur Lehiaketan

Aurreko asteburuan Terranova arrazako Txakur Lehiaketa jokatu zen Lekeition. Uretako salbamendurako ariketak egin zituzten, eta lehiaketa ikusgarria izan zen. Euskal Herriko ordezkariak gainera, Espainiako Estatuko eta atzerriko jende asko ere izan ziren. Txapelketan lau maila izan ziren, eta ariketa ikusgarrienak laugarren mailako txakurrek egin zituzten.

Lehenengo eta behin, hondartzan hainbat ariketa egin zituzten. Ondoren, txakurrek jabeekin batera 20 minutu igeri egin eta uretako ariketak hasi

zituzten. Uretan txakurrek sorosleekin batera egindako erreskate ariketak izan ziren ikusgai. Ariketa horiek ez ziren nolana hikoak izan. Horieta ariketa batean, txakurrak eta sorosleak itoztera zihoan pertsona bat erreskatatu eta gero, sorosleak erreanimazio lanak egin behar zituzten, eta bitartean txakurrak pertsonaren ondoren etzan behar zuten, hura babestu eta berotasuna emateko.


Beste ariketa baten, txakurrak urperatutako bi lagun erreskatatu behar zituzten. Horrez gain, noraezean zebilen txalupa berreskuratu, txalupa batetik bes-

tera soka eramanez, flotagailua eramanez eta horrelako ariketak ikusi ahal izan ziren.

ARRASATEAR BAT EPAILE LANETAN

Mertxe Valdivieso mondragoe-tarrak ezin izan zuten lehiaketan parterik hartu, epaile lanak egin behar izan zituen-eta. Gustura hartuko luke parte lehiaketan, baina gutxi dira epaile lana egin dezaketenak, eta Mertxeri egokitu zioten lan hori.

Lehiaketan Terranova arrazako txakurrek hartu zuten parte. Euskal arrantzaleek ondo eza gutzen dute txakur hori.



MERTXE VALDIVIESO

Terranova arrazako txakurrak erreskate lanetarako oso onak dira.

FUTBOLA

Gehiago merezi izan zuen arren, Mondra esku-hutsik itzuli zen Oreretatik (2-1)

Touring ez zen Mondra baino gehiago izan, baina izan zituzten gol aukeretan oreretarrek ez zuten barkatu

XABIER URZELAI

Zapatuan Mondraren partidua ikustera Oreretaraino joan ziren arrasatearrak atsekabertuta bueltatu ziren. Mondrak ez zuen partidua txarra egin, baina Josu Zubiaren mutilak ez ziren norgehiagoka erabakita uzteko gauza izan. Oreretarrek, ordea, bai.

Mingarria izan zen zapatuko partidua galtzea, Arrasateko taldeak itxura polita eskaini zuen-eta. Gaizki jokatzen denean partidua galtzea da normalena, baina ondo jokatuta galtzeak min handia ematen du. Norgehiagoka parekatua jokatu zuten zapatuan Touringek eta Mondrak. Lehenengo zatian, bi taldeetako inor ez zen baloiaren jabe izan. Mondrako aurrealdeko jokalariek ez zuten asmatu, eta atzealdekoek nahiko lan izan zuten jokoz kanpoko jokaldiak zaintzen.

Touringek ez zuen gauza handirik egin; hori bai, falta jaurtiketa bat ondo atera eta 1-0 aurreratu zen.

BIGARREN ZATIA IKUSGARRIAGOA

Bigarren zatian Mondragoeko jokalaria gogotsu zelairatu ziren. Bigarren zatia hasi eta berehala, Soralezetik etorri den Inak jokaldia egin, Muruari pasea eman, eta hark banakoa egin



XABIER URZELAI

Taldeko beteranoa bai, eta beste behin, baloia buruz jotzerakoan trebeena dela erakutsi zuen Ruedak.

zuen. Minutu asko geratzen ziren aurretik, eta Arrasateko taldeak nola jokatzen zuen ikusita bazi-rudien gauzak dezente aldatuko zirela. Bigarren zatian Mondrak Touringek baino hobeto jokatu zuen. Josu Zubiak aldaketak egin

zituenean taldeak ez zuen behe-
ra egin: Andresek atzealdea indar-
tu zuen; Garmendiak aspaldiko
25 minutu onenak jokatu zituen;
Loitik arriskua eraman zuen
ezker hegaletik; Lopezek fresko-
tasuna eman zion aurrealdeari.

Esan bezala, aldaketek on egin zio-
ten Arrasateko taldeari, baina ez
zen markagailuan aurreratzeko
nahikoa izan. Loiti ahalegindu
zen ezker aldetik min egiten, bai-
na gura baino baloi gutxiago iri-
tsi zitzaizkion. Mondrak indar

handiko jokalaria ditu hegale-
tan, aurkariaren defentsa erraz
apur dezaketenak, eta hori hobe-
to aprobetxatu behar da.

Arrasateko jarraitzaileak
banakoarekin konformatu behar-
ko zutela konturatzen hasi zire-
nerako, Touringek bi eta batekoa
egin zuen. Epaileak Mondraren
kontrako falta adierazi zuen, area
barruan egindako falta. Horrela-
ko jokaldiak arriskutsuak izaten
dira, are arriskutsuagoak 85.
minutuan izaten badira. Etxeko-
en gol aukera garbi bakarra izan
zen, baina sekulako errenta eman
zien (2-1).

Norgehiagoka amaitzeko bost
minutu geratzen zirela, arrasate-
tarrek gora egin zuten, eta nola,
gainera. Mondrako jokalariek
hainbat gol aukera izan zituzten,
eta gol aukera horietako batean
baloiak zutona jo zuen. Horren-
bestez, zapatuan Mondrak ez zuen
zortea aldeko izan, eta lehenen-
go postuei eusteko aukera pare-
gabea galdu zuen.

GOIALDEAN ZEUDENEK, KALE

Joan den astean goiko postuetan
zeuden taldeek kale egin zuten,
eta liderrak, Santo Tomas Lizeo-
ak, Mondrak baino puntu bat
gehiago baino ez du. Oraingo aste-
buruan bederatzigarren postuan
dagoen Hondarribia izango da
Atxabalpen. Etxeko puntuak dira
ondo lotu beharrekoak.

Ointxe Saskibaloia Taldea lanera bueltan da, hainbat aldaketarekin

X.U.

Arrasate Saskibaloia Taldeak
joan den asteburuan hasi zuen
Liga Txapelketa. Hainbat
aldaketa egin dituzte oraingo
denboraldirako, eta aldaketa
horietako bat izena da; izan
ere, hemendik aurrera Arrasa-
teko Ointxe Saskibaloia Taldea
izango da.

Arrasateko Ointxe Saskibaloia Tal-
deak joan den asteburuan hasi
zuen Liga Txapelketa. Arrasate-
ko taldea ez dago sasoi onean,
hainbat jokalarik taldea uztea era-
baki dute-eta. Horrez gain, orain
arte Arrasateko entrenatzaile izan
den Iker Zubiria oñatiarrak ere tal-
dea utzi du, AEBetara joan da-eta.

Guztia, baina, ez da albiste
txarra, hainbat urtez TAU Bas-
koniako bigarren entrenatzaile
izan den Josu Larreategi Arrasa-
teko taldean izango da-eta, lagun-
tzaile lanetan. Lehenengo jardun-



ARTXIBOA

Zapatuan Arrasatek Caja Rural Ardoynen kontra jokatuko du (18:00, Iturripe).

naldian mondragoetarrek argi
ikusi zuten non duten gabezia
handiena: pibot postuan, hain
zuzen ere. Club Natacion Pam-

plona Taldeak ondo aprobetxatu
zuen gabezia hori, eta 92-78 gai-
lendu zen. Mondragoetarrenda-
ko urte gogorra izango da.

FOTOKIROLA



Ramon Ramila ehiztari abilena

Joan den zapatuan Leintz Arrantza eta Ehiza Elkarrekin Ehi-
za Txapelketa antolatu zuen Santa Cruz del Fierron, Arabako
Errioxan, eta, hirugarren urtez, Ramon Ramila arrasatearra
izan zen txapelketako onena. /X.U.

San Migelak

03

S

an Migel jai bete-beteak ditugu Garagartzan. Mitologia, kultura, gastronomia eta parranda; horrek guztiak bat egiten du Ugaran ibarreko auzoan. Mitologian, Neanderthalgo gizakiak eta laminak ditugu protagonista. Urtero-urtero

ateratzen dira gordelekitik garagartzarrei bisita egiteko. Gastronomiari dagokionez, nork ez ditu sekula jan Garagartzako buzkantza goxoak? Oraindik halakoren bat badago, jaietan dauka aukera paregabea: 300 kilo buzkantza

tza gertu dituzte ordurako. Eta, kulturari eta parrandari dagokionez, esan auzo guztia ibiltzen dela Garagartzan jaiak prestatzen, eta, jakina, gero jaietz gozatzen. Hori baino kultura hoberik badago?... Ondo ibili!

UGARAN
jaketxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

Ante
garajea

Garagartza
auzoa, 9
Tel.: 943 79 82 59



**TXAPA ETA PINTURA
KONPONKETAK**



Belun

Garagartza auzoa Tel.: 943 79 61 14



OBATEKO HARROBIA
Eraikuntzarako harria

OBAUNDI HORMIGOLAK
Hormigoi prestatuaren fabrikazioa

Ondo pasau Garagartzako jaixetan

Tel.: 943 71 24 03. Faxa: 943 77 02 51 Posta kutxa: 85.
Garagartza auzoa.

Egitaraua:

Irailaren 26an, barikue edo eguakotxa.

19:30 Jaixen hasiereie, ikurriñe igo eta etxaflero jaurkietie.

19:45 Dantzaldixe Haitzama taldiaz 21:00ak arte, eta gero 22:00etatik ordubixek arte.

Gaberdixen Lamiñei eta Neanderthal gizonei ongi etorrixe. Horren ostien dantzaldixe.

00:30 Bola Txapelketie (ordubixek arte).

Irailaren 27an, zapatue

12:00-14:00 KULKI: Herri kirol eta baserriko jolasen jaixe.

16:00-19:00 JOKULANDIA: Umiendako jokuek.

17:00-19:00 Irrati bidez kontrolatutako kotxien Garagartzako 5. sarixe.

19:30 Bertsolarixek: Manex Agirre, Enaitz Alustiza eta Jokin Labaien. Gai jartzailie: Lierni Altuna.

22:00 Dantzaldixe TXINPARTA taldiek alaittute (ordubixek arte).

23:00 Bola txapelketie (ordubixek arte).

Irailaren 28an, domeka

12:00 Mezie auzoko hildakuen alde.

12:30 Txikitxu taldiaz euskal dantza erakusketie, eta horren ostien bermuth dantzie.

14:30 Auzo bazkaixe.

Bazkalostien Erromerixie Haitzama taldiaz.

Irailaren 29an, astelehena (atsaldien)

19:00 Samigelen ohorez mezie.

19:30 Luntxe Patxizenien.

Barikuen eta zapatuen buzkentzak egongo die atsaldeko 7retatik aurrera, auzo etxien.

*Paraje eder
baten kokatua*



Arteaga

Landetxea

*Arteaga baserria,
Garagartza auzoa, 37 zenbakia
20500 Arrasate • Gipuzkoa
Tel. 943 71 18 81
Faxa: 943 71 18 82*

FAGOR



Fagor etxetresna elektrikoak kooperatibak
jai zoriontsuak opa dizkizue

ANTZERKIA/ Tanttaka taldeak antzerki ikuskizuna eskainiko du Amaia Udal Antzokian

'Mi Suicidio' lanarekin bizitzaren gaineko galdera existentzialak plazaratuko dituzte

IKER BARANDIARAN

Domekan, irailaren 28an, Tanttaka antzerki taldeak *Mi Suicidio* izeneko ikuskizuna eskainiko du. Antzezlanaren Amaia Udal Antzokian egingo dute, 19:30ean. Mario Gas aktorea da protagonista, eta lan hori Henri Roorda idazle frantsesak idatzi zuen.

Bihar, zapatua, Udaleko Kultura Sailak ikasturte honetako kultura eskaintza hasiko du: Tanttaka antzerki taldeak *Mi Suicidio* lana eskainiko du. Eta etzi, domeka, Euskal Herriko Tronboi Laukoteak kontzertua eskainiko du. Bi ekitaldiak Amaia Udal Antzokian egingo dituzte.

Mi Suicidio lana Henri Roorda idazle frantsesak idatzi zuen. Henri Roorda 1870ean jaio zen. Matematikaria zen, eta intelektualen giroan ezagun bilakatu zen. Besteak beste, *Mi Suicidio* izeneko lana idatzi zuen. 1925ean bere buruaz beste egin zuen.


Hala, Tanttaka antzerki taldeak lan hori antzokietara eramango du. Lan horretan bizitzaren

gaineko galdera existentzialak egiten dituzte: maitasuna, plazer, gizarte, lana... Henri Roordak ezkortasun alai moduan definitu zuen. Bere buruaz beste egiteko ideiarekin gaineko txantxak egin zituen eta horretan oinarritu zuen bere lana, baita bere bizitzako azkeneko sasoia ere.

MARIO GAS, PROTAGONISTA

Tanttaka antzerki taldeak ibilbide luzea dauka: antzezlan mordoak egin ditu eta sari asko eman dizkiote. Antzerki taldearen azkeneko lana honako hau da: *Mi Suicidio*. 2002aren abenduan estreinatu zuten Donostiako Antzoki Zaharrean. Lanak oso kritika onak izan ditu eta argumentuak ikuslearen jakin-mina piztu du.

Tanttaka taldearen lanak aktore bakarra du: Mario Gas. Mariok arlo asko landu ditu, eta jende askok zineman ibiltzeagatik ezagutuko du; izan ere, dagoeneko hamalau bat filmetan egin ditu aktore lanak. Horrez gain, zinemako gidoilari eta zuzendari lanak ere egin ditu. Besteak beste, *El Pianista* zuzendu zuen, eta hainbat sari eman zizkieten.



Tanttaka antzerki taldeak ibilbide eta eskola handia dauka. Mario Gas aktorea da protagonista *Mi Suicidio* lanean.

MUSIKA/ Arrasateko hiru musikariek eta beste lagun batek tronboi kontzertua egingo dute

Euskal Herriko Tronboi Laukoteak kontzertua eskainiko du bihar

I.B.

Bihar, zapatua, EHTrOILAK, Euskal Herriko Tronboi Laukoteak, kontzertua egingo du Amaia Udal Antzokian. Laukotea hiru arrasatearrek eta Puerto Ricon jaiotako beste musikari batek osatzen dute. Lau tronboi jotzaileek emankizun berezia iragarri dute.

Udaleko Kultura Saileko arduradunek, Arrasateko alkateak eta laukotea osatzen duten lau tronboi jotzaileek prentsaurrekoa egin zuten martitzenean udaletxean. Biharko, zapatua, kontzertu berezia iragarri dute. 20:00etan, Francisco Rosariok, Mikel Arkauzek, Alberto eta Unai Urretxo anaiek azkeneko hirurak arrasatearrek tronboi kontzertua egingo dute. Besteak beste, Hassler, Telemán, Debussy eta John Lennon kanatuak joko dituzte.

PUNTA-PUNTAKO TRONBOI JOTZAILEAK

EHTrOILA osatzen duten lau musikariek oso ibilbide luzea dute: Francisco Rosario Puerto Ricon jaio zen, baina aspaldi etorri zen Espainiako Estatura. Tronboia jotzen ibilbidea luzea egin du: Eus-

kal Herriko Gazte Orkestrako metal saileko maisua izan zen, Alberto Urretxo arrasatearri asko erakutsi zion, eta gaur egun Sevillako Orkestrako solista da.

Alberto Urretxo hiru arrasatearren arteko nagusiena da. Aspalditik dabil tronboia jotzen: besteak beste, Mondragon Brass taldearen sortzailea izan zen, eta gaur egun Bilboko Orkestra Sinfonikoko tronboi solista da.

Unai Urretxo Albertoren anaia txikia da eta tronboiaren gaineko ikasketa mordoak egin ditu. Gaur egun Bostonen bizi da eta hango unibertsitatean dihardu musika eskolak ematen, baita jasotzen ere.

Mikel Arkauz Unai eta Albertoren lehengusua da. Mikel ere musika eta tronboi zale handia da, eta lau urte egin ditu Rotterdamen (Holanda) musika ikasketak egiten. Han dihardu oraindik buru-belarri.

Lau musikariek zera adierazi zuten prentsaurrekoan: "Oso berezia da laurok batera Arrasaten kontzertua egitea: alde batek, laurok gure artean daukagun harremanarengatik; eta bestetik, Arrasate gutako hiruren herria delako".

Arrasateko Udaleko Kultura Saileko arduradunek eta Inazio Lakuntza alkateak musikari horiek duten maila altua nabarmendu zuten, eta halako ekitaldi berezi gehiago antolatzeko asmoa erakutsi zuten.

KONTZERTU BEREZIA ETA OMENALDIA

Lau musikariek nabarmendu gura izan zuten kontzertua entzuteko erraza izango dela, eta, besteak beste, Hassler, Telemán, Debussy eta John Lennon piezak joko dituztela. Horrekin batera, kanatu bakoitzaren gaineko azalpenak emango dituzte.

Horrez gainera, Alberto Urretxok azpimarratu gura izan zuen ekitaldiaren baitan omenaldi berezi bat egingo dutela: hain zuzen ere, abuztuan Saharan hil ziren Jon Zabala eta Mikel Biteri lagunak zituen, eta haien omenezko ezusteko hunkigarria prestatu dutela aurreratu zuen Alberto Urretxok.

Horrenbestez, Arrasateko kontzertu horretan Euskal Herriko Tronboi Laukotea berriro batuko da aspaldiko partez, eta oraingo ez dute beste kontzerturik iragarri. Partaideak herrialde ezberdinetan bizi dira eta guztiak ere konpromiso ugari dituzte.



Argazkian, bihar kontzertua egingo duten lau tronboi jotzaileak.

ELKARRIZKETA



DES-KONTROL

DES-KONTROL/MUSIKA TALDEA

“Harrituta gaude gure kantuek atzerrian izan duten harrerarekin”

IKER BARANDIARAN

Isil-isilik ibili arren, Des-Kontrol taldekoak lanean fin dabilta, eta fruituak jasotzen ari dira. Euren kantuak nazioarteko hainbat bildumatan kaleratu behar dituzte, eta joan den asteburuan Portugalen jo zuten. Ez da gutxi!

Zenbat urte egin ditu Des-Kontrol taldeak eta zer ibilbide egin duzue?

1996ko irailean hasi ginen, eta hasierako partaideok jarraitzen dugu: Peter, Markel, Osoron, Haritz eta Oierrek. Zazpi abesti dituen mini-CDa kaleratu genuen, Bronco Bullfrog diskoetxearekin; Beltza Records-ek argitaratutako EPa ere badugu -Puñetazo, Rip eta Vomito taldeen kantuak grabatu genituen-, eta 2001ean *Behin eta berriz* izeneko CDa kaleratu genuen, Potencial HC diskoetxearekin. 130 bat kontzertu egin ditugu, eta azkenengo diskoak 1.500 kopia saldu ditu.

Gerora, abesti berriak grabatu dituzue eta nazioartera zabaldu, ezta?

Bai. Otsailean lau abesti gra-

batu genituen Shot! estudioan; bi gaztelaniaz eta beste bi euskaraz. Kantabria, Portugal, Italia eta Eivissako (Ibiza) diskoetxe batzuek prestatu gura duten bilduma baterako, hain zuzen. Kantuok atzerriko beste diskoetxe batzuetara bidali genituen, eta harrera ona izan dute. AEBetako TKO Records-ek abestietako bat argitaratuko du bilduma baten, baita Ingalaterrako Step One diskoetxeak eta Eivissako Bronco Bullfrog-ek ere. Horrez gain, Decibelios-en omenezko disko baten guk grabatutako *Vientos de libertad* sartuko dute. Pozik gaude izan dugun harrerarekin. Gainera, baliteke atzerriko bilduma horietan euskarazko kan-

turen bat argitaratzea!

Orain dela gutxi Portugalgo talde batekin harremanetan izan zarete, eta elkartrukea egin duzue, ezta?

Bai, hala da. 80ko hamarkadan sortutako Mata-Ratos taldearekin ibili gara harremanetan. Gure kantuak entzun dituzte, eta elkarrekin jotzea eskaini digute. Gaur, egubakoitza, kontzertua égingo dugu lau taldek Arrasateko gaztetxean, Mata-Ratos eta gu geu tartean. Horrez gain, joan den asteburuan Algarve inguruan (Portugalgo hegoaldean) jo genuen. Aurretik Leonen, Galizian eta Bartzelonan izan gara, baina badirudi gero eta sarriago irtengo garela.

“Gaur, egubakoitza, kontzertua égingo dugu gaztetxean, beste hiru talderekin batera”

“Baliteke atzerriko bildumaren baten gure euskarazko kanturen bat argitaratzea”

KULTURAPILULAK

Film laburren emanaldia eta kontzertua antolatu dituzte asteburuan gaztetxean

AGAKOk, Arrasateko gazte batzarrak, bi ekitaldi interesgarri antolatu ditu astebururako. Batetik, gaur, egubakoitza, irailaren 26a, punk-Oi! kontzertua égingo dute. 22:00etan, Arrasateko Des-Kontrol, Portugalgo Mata-Ratos, Lazkaoko Brigada Criminal eta Bizkaiko Hell Beer Boys taldeek musika emankizuna eskainiko dute. Sarrera lau euro kostako da.

Bestalde, bihar, zapatua, film laburren emanaldia antolatu dute. Lagun talde berberak ospitale zaharreko gaztetxean halako emanaldia antolatu zuen, eta oso arrakastatsua izan zen. Orain, errepikatzea erabaki dute. 23:00etan hasiko da eta Euskal Herriko eta Espainiako Estatuko film labur ezagunak emango dituzte. Besteak beste, *Txerriboda*, *La primera vez*, *El Secreto de la Tlompeta*, Acheru Mañasen film labur bat eta ibarreko *skate*-aren gaineko bideo-lana. Azken hori Arrasateko Largo Productions-ek egina da. Emanaldia doan izango da, eta gutxienez bi ordu eta erdi iraungo du. Emanaldian taberna zabalik égongo da, eta proiektagailua eta pantaila erraldoia ipiniko dituzte. Antolatzaileen esanetan, ezustekoak ere izango dira.



Ekon musika taldeak agur esango digu

Bederatzi urtean agertokiz agertoki ibili ostean eta hiru disko argitaratu ondoren, Ekon taldeak bere ibilbideari bukaera emango dio. Taldeko partaideek aditzera eman dutenez, bi urtetan ia ez dute atsedetik hartu, eta, taldea bederatzi lagunek osatzen dutenez, lan handia egin behar izan dute taldekide guztiak batera koordinatzeko.

Hortaz, gaur egun herrian dagoen talde ezagunena desagertu égingo da, baina beste batzuk jaioko dira. Urriaren 25ean égingo dute azken kontzertua, gaztetxean. /I.B.

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

ESKORIATZA
Tfno 714345
ERRETEGIA
MENDIOLA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita
ESKORIATZA

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis - Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 - 79 78 14
ARRASATE

BEHEKOSEGUROETXETIK

Enrike Mendieta

MENDIETA ASEGURUAK

XABIER URZELAI

Zuzenbidie ikasten ebillela seguro-etxekin hasi zan lanien, eta ikasketak alde batera itxi zittuen. Lokala jarri eta gero, seguro-artekari titulua eskuratu euen, eta seguruez gain, aholkularitzak be etorkizuna eukenez, arrebiek ikasketak bukatu arte itxoin euen. Oin batera dabitz lanien, Kontzeziñon.

Txikittan ze gure zeuen izen?

Ez naz akordetan, futbolista-edo.

Eta oin, lanbide hori hartuko zeuke?

Dagueneko pasau jat futbolista izeteko edadie, baiñe oso ondo egongo litzake.

Drogak legalizauko zeuke?

Ez dot usté. Ez nau seguru, baiñe pentsetan dot drogak legalizaute eskure egongo litzakezela. Izen leike oker egotie.

Eta prostituziñue?

Dauen moduen itxiko neuke, legalizau ezkeru oso deskaraue izengo litzake-eta.

Nora juengo zitzake gustora?

Oin? Karibera.

Etxeko lan gorrotagarrixena?

Plantxie egittie, ohiek egittie eta zapatak garbiketie.

Bizio bat?

Bizikletie.

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat?

Ordenadorie.

Ze aseguret an dozie Mendieta Aseguret an?

Danetik: automobillek, etxiek, bizitza-seguruek be egitten dittugu... Horretaz aparte, aholkularitza lana be egitten dogu.


Ze daukie Mendieta Aseguruek beste batzuek ez daukiena?

Zerbitzu kalidade ona eskeintzen dogule.

Eta ze dauko Kurtzetak egu-nero jueteko?

(Barriek). Bizikletan ibilttie asko gustetan jat, eta Kurtzeta aldie oso lasaixe da, auto gutxi ibiltten da-eta.

Atrebentzia ez bada, zenbat



"Bizitza-segurue diru askorik ez daukienendako da; aberatsek ez daue holakorik biher"

"Gazte askok ondo konduziduten daue; beste asko, barriz, karreteran zoruen pare ibiltten die"

ordainketan dozu automobille aseguraute eukitziarren?

Neure edadie daukon beste edozeiñek pagetan dauena. Ez pensau deskontuek egitten dustienik.

Ze aholku emungo zeuskio automobille erosi gure dauen 20 urteko gaztiari?

Automobille erosteko 25 urte euki arte itxoin daixela; eta bittartien, bigarren eskuko auto batekin ibilli daille. Ez daixela automobil potenterik erosi, taxi baten ibilttie merkiague urten biher jako-eta.

Eta ze esango zeuskio seguro barik dabillenari?

Ez daukola bururik, zoro hutse dala. Zeozer pasetan bada, sekulakue jausi biher jakola, bizitza oso-

rako, gainera.

Zein da automobilien eta motorren seguruek horren garestixek izeteko motibue?

Dauen siniestralidade altue. Nahiz eta ondo konduziduten dauen gaztiek egon, asko eta asko zoruen pare ibiltten die.

Bizitza-segurue egitterakuen, zela jakin pertsona baten bizitzak zenbat balixo dauen?

Hori pertsoniek berak deziduten dau. Jentiek uste dau bizitza aseguretie aberatsen kontue dala. Baiñe aberatsek ez daue biher holakorik, dirurik ez daukonak eta familixie daukonak egin biherko leuke bizitza-segurue, edozer pasetan bada be.

NIREBIDAIAHURA / Jose Manuel Ezkerra

Vietnam / 2003ko abuztuan

Joan den astean Vietnamgo iparraldean utzi genituen *Mamel* eta lagunak. Hegoaldera joateko asmoz zuten, eta hiru mila kilometro ziztuzten egiteko. Trenean egin zuten bidaia, eta hainbat egunez kostaldean izan ziren, atsedean hartzen. Kostalde luzea du Vietnamek, eta sekulako hondartzak daude han: "Ni ez naiz hondartza-zalea, nahiago dut mendian ibili, baina kostaldean egin genituen egunetan lasai-lasai ibili ginen. Hango hondartzetan ez zebilen inor, bakar-bakarrik geunden".

Hegoaldean, Vietnamgo hiri handienara joan ziren, Saigonera: "Badirudi inoiz ez dela amaituko, sekulako hiria da; Londresekin alderatuko nuke".

Saigondik Kanbodiara, eta handik Mecong ibaiaren delatara: "Vietnamera joanez gero, Mecong ibaiaren delta derri gorrez bisitatu beharreko lekua da. Herria ur gainean dago, txalupa handietan bizi dira-eta. Bizilagunak arrantza egitetik bizi dira, eta gainerako erosketak ere txalupetan egiten dituzte. Bitxia bezain interesgarria da".

Mamel-en esanetan, Vietnamen ez du jateko arazorik izan: "Elikagai garrantzitsuen arroza da, baina iparraldean eta hegoaldean jateko ohi-turak ezberdinak dira. Gura izanez gero, iparraldean txakur okela jan daiteke. Hegoaldean, berriz, sugea eta arratoia probatzeko aukera izan genuen".

Vietnamgo hirietan zegoen kaosak ere harritu zuen *Mamel*: "Hanoin hiru milioi moto daude, eta ez dago semafororik. Hasieran, kale bat gurutzatu gura zenuenean, bazi-rudien ezinezkoa izango zela. Gero, baina, ohitu egiten zara, eta lasai asko egiten duzu errepidera salto. Badakizu motoan datozenek ez zaituztela harrapatuko, horrela gidatzera ohituta daude-eta. Oso hiri kaotikoak dira, baina kaos antolatua dela esango nuke."

Ez dira urte asko AEBek Vietnamian eraso egin ziotela: "Horrek harritu ninduen; gerra kontuen gainean egiten zuten berba, baina ez zuten gorrotorik".



"Hango hirietan kaosa da nagusi, kaos antolatua"

XABIER URZELAI



Autoz bidaiatzea ez da eroso; trenak, berriz, oso ondo daude.

Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude? Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



ZAHARREN ETXETIK



Uribarriko elkartean batutakoek interes handiz entzun zituzten Mertxe Acera psikologoaren azalpenak.

Zahartzaroan osasuntsu bizi izateko hainbat aholku eman zituzten Uribarrin

IKER BARANDIARAN

Joan den martitzenean Uribarriko erretiratuen elkartean berbaldi interesgarria egin zuten. Elkartekoek ustetan ez zen jende askorik batu -hogei bat lagun izan ziren-, egun eta ordu berean Monterronen beste berbaldi bat zegoelako.

Hala ere, han batutako erretiratuek -emakumeak, gehienak- interes handiz entzun zituzten Mertxe Acera psikologoak eman zituen azalpenak.

GOGOTSUA IZATEA ETA GAUZAK EGITEA
Mertxe Acerak lehenik eta behin zera azpimarratu zuen: garrantzitsuena ez dela luze bizi izatea, baizik eta edadetuak bizi kalitate ona izatea. Horretarako, garrantzitsuena da edadetua aktiboki bizi izatea eta gauzak egiteari

ez uztea. Horrez gain, iraganean egindako bizimoduak zahartzaroan eragin handia izan dezake; hau da, horren arabera, gorpuzteko eta buruko osasun ona edo txarragoa eduki daiteke.

Hala ere, iraganean asko edo gutxi zaindu, zahartzaroan osasun hobea edukitzeko ohitura batzuk hartzea aholkatu zuen: besteak beste, denetik eta ondo jatea; egunero-egunero kirola egitea; ez erretzea; alkohola neurrian edatea; eta, batez ere, aisialdirako denbora hartzea, beste lagun batzuekin batera bada, hobeto.

AISIALDIAN LAGUNEKIN EGOTEA
Mertxe Acera psikologoak garrantzi handia eman zion aisialdiari. Aceraren esanetan, erretiratuek aisialdirako denbora luzea dute, baina denbora hori antolatzea

ezinbestekotzat jo zuen. "Karta-jokoan egin daiteke eta telebista ikustea ere ez dago gaizki, baina gauza gehiago egin behar dira, eta lagun gehiagorekin egiten bada, askoz hobeto. Oso garrantzitsua da erretiratuen elkarteetan eta beste batzuetan parte hartzea".

Acera psikologoak uste du edadetu askok -eta gizarteak orokorrean- dituzten aurreiritziak alde batera utzi behar direla. "Edadetuak 20 urte ez dituela onartu behar du, baina jakin behar du beste erritmo baten edo motelago ibili arren, gauza mordoa egiteko gauza dela".

Edadetuaren gainean dauden esamesak gezurtzat hartu zituen: "Esaterako, edadetuak lan handia egiten dute; sexuaz eta maitasunaz gozatzeko gauza dira; ez dute geldirik egon gura, eta asko bakarrik baliatzen dira".

Aisialdirako denbora ondo antolatzea ezinbestekotzat jotzen dute

Denetik eta ondo jatea eta kirola egunero-egunero egitea oso garrantzitsua da

LABUR

Toki Argiko erretiratuek, Italiara txangoa

Toki Argi elkarteko erretiratuek Italiara bidaiara antolatu dute. Martxoaren 24an irtengo dira Arrasateetik eta hilarren 31n bueltatuko dira herriera. Besteak beste, Niza (Frantzia), Pisa, Florentzia, Siena, Erroma, Padua, Venezia, Milan eta Erroma bisitatuko dituzte. Interesatuak 570 euro ordaindu beharko dituzte.

Jo lehenbailehen Toki Argiko bulegora.

Uribarriko txangoa eta berbaldia antolatu ditu

Uribarriko erretiratuen elkarteak Trapaga eta Zugastietara txangoa antolatu du. Eguenean, urriaren 2an, Trapagara joko dute eta funikularrean Arbolede herrira igoko dira. Interesatuak 20 euro ordaindu beharko dituzte, baina baliteke albiste hau irakurri orduko autobusa beteta egotea.

Bestalde, eguaztenean, urriaren 1ean, Uribarriko elkartean berbaldia antolatu dute. *Buru-egzaitasuna dutenen ondasunen kudeaketa* izenburuko berbaldia 17:00etan izango da.

Maritxu Kajoi egunean luntxa egingo dute Abaroan

Datorren egubakoitzean, Maritxu Kajoi Egunean, hain justu, egun berezi hori ospatzeko, Abaroa erretiratuen elkarteak luntxa antolatu du.

Luntxera joateko interesa duten Abaroako bazkide guztiek elkarteko bulegoan eman beharko dute izena lehenbailehen.

Esandako moduan, luntxa Maritxu Kajoi egunean izango da, 18:30ean, eta antolatzailleek erretiratuei dotore dotore jantzita joateko gonbidapena egin diete.

Mobiliario
ARENZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

BITTORI
ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu jostek
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

 Txitxinpe

Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76



ARRASATE
Gorka Aranbarri
Irailaren 26an, 6 urte. Zorionak! Aita, ama, Oihana eta familia.



ARRASATE
Josune Garai
Irailaren 27an, 25 urte. Zorionak, eder hori! Etxe-koak.



ARRASATE
Jon Zabala
Irailaren 27an, 10 urte. Zorionak! Aita, ama, Naiara eta Clarisa.



ARRASATE
Marta Rodriguez
Irailaren 24an, 17 urte. Zorionak! Etxe-koak.




ARRASATE
Mikel Altuna
Irailaren 21ean, 12 urte. Zorionak! Aita, ama, Saioa, Mikel eta Jone.



ARRASATE
Alazne Arrotxa
Irailaren 28an, 13 urte. Zorionak! Osaba-izebak eta lehengusu-lehengusinak.



ARRASATE
Xabier Belastegi
Urriaren 1ean, 9 urte. Zorionak! Etzekoen partetik.



ARAMAIO
Gorka Arias
Irailaren 25ean, urtebetetzea. Zorionak! Aramaioko kristo guztiaren partetik.



ARAMAIO
Nerian Perez
Irailaren 25ean, 22 urte. Zorionak! Aramaioko kristo guztiaren partetik.



ARRASATE
Leo del Palacio
Irailaren 22an, urtebetetzea. Zorionak! Senideen partetik.



ARRASATE
Miren Heriz
Irailaren 26an, 8 urte. Zorionak! Etzekoen partetik.



ARRASATE
Leire Vilches
Irailaren 24an, 2 urte. Zorionak! Osaba-izeben partetik.



ARRASATE
Marta Carrero
Urriaren 1ean, 2 urte. Zorionak! Gurasoak, Markel eta familiakoak.



ARRASATE
Miren Gonzalez
Irailaren 20an, 3 urte. Zorionak! Aita, ama eta Ander.

Adi!

Argazkiak emateko lekua:

Arrasate:

ARRASATE PRESS

Otalora Lizentziaduna 31.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitzazu ezusteko ederra! **Doan!**



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

EZETZASMATU



UBANE MADERA

Non dago argazkian ikusten duzuen iturri hori?
Arrastoa: iturritik oso gertu areto futbolean ibiltzen dira sarri.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Mendisol ekilore-olioa
Litro bat

0,73€ 121 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

EUGENIO GARCIArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Eugenio!
Galderen erantzun zuzena:
Arrasate Musikal dagoen eraikina da.

ARRASATEKO HISTORIA

Barroko garaiko eraikina da Arrasateko udaletxea

JON ANDER RAMOS

Gaur egun udaletxea herriaren hiribildu barruan dago, Erdiko kalearen eta Iturriotz kalearen artean. Edozelan ere, eraikin hori ez zen Arrasateko aurreneko udaletxea izan. Aurrenekoa Resusta kaleko (gaur egungo Iturriotz kalea) etxe baten zegoen kokatuta.

Oraingo eraikina XVIII. mendekoa da. Lanak 1756-57. urtean hasi zituzten, Martin Karrera izeneko arkitektoaren gidaritzapean.

Arkitekto ospetsua zen sasoi hartan Martin Karrera. Arrasateko eraikinaren antzerako makina bat halako egin zituen; inguruan, adibidez, Oñatiko eta Antzuolako udaletxeak hark egindakoak dira.

Arrasateko udaletxeari dagokionez, 1766. urtean bukatu zituzten lanok, eta Bergarak izan ezik, inguruko gainerako herriek lagundu zioten Arrasateri gastuak ordaintzen.

Harlanduz eginiko eraikina da; jakina, herria harrobiz beteta egonda, harri gehiena Galarratik atera zuten (Uda-

1756. urtean hasi zituzten udaletxea egiteko lanak, eta 1766an bukatu zituzten

Udaletxea egiteko harri gehiena Galarratik (Udalatxpetik) atera zuten

latxpetik); edozelan ere, moldurak egiteko Aguraingo harria erabili zuten; itxura denez, lantzeko errazagoa zen harri mota hura.

Herriko Plazako eraikina barroko garaikoa da, eta sasoi Euskal Herriko zenbait udaletxeren ohiko egitura dauka. Hala, behe-oina arkuduna dauka. Hain justu, bost arkuk osatzen dute. Aurreko



UBANE MADERA

Aipagarria da udaletxeko bilera gela; oso lan ikusgarria dauka barruan, egurrez egindakoa.

aldean burdin sare egindako balkoi handi bat dauka erdian, eta gorago, frantses *rococo* estiloaren eraginarekin egindako armarrria: Arrasateko armarrria.

Horrez gainera, barruko aldean ere baditu gauza interesgarriak; adibidez, sartu eta berehala eskailera nagusia nabarmentzen da, erdi-erdian. Eskailera horren harmaila

bakoitza harrizko pieza bakar-rarekin landuta dago. Horrez gainera, aipagarria da udaletxeko bilera gela; oso lan ikusgarria dauka barruan, egurrez egindakoa.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko irailaren 26a / 78. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Basurdeek kalteak eragin dituzte Bolintxoko zelaietan

UBANE MADERA

Aurtengo sikateak eraginda, basurdeak jaitsi dira basotik Bolintxoko pare bat zelaitara. Batean lurra harrotu dute eta bestean landutakoa apurtu edo jan egin dute.

Basoak siku daudela-eta, sei basurde (emea eta bost kume) Bolintxoko zelaietara jaisten dabilta azken asteotan, janari bila. Hain justu, Julian Untzuetaren eta Martin Etxaberen zelaietan igartzen dira haien arrastak. Eta ez txikiak, gainera. Juliani ganaduarendako prestatutako zelai guztia harrotu diote. Eta Martini, baba landareak lekutik atera dizkiote eta artoa jan diote. Zelaiak ureztatu egin dituzte-eta, itxura denez errazagoa zaie basurdeei janaria bilatzea.

Julianek eta Martinek kontatu digutenez, ia egunero jaisten dira basurdeak. Julian Untzuetaren zelaietan dauden behien marrumen bitartez jakiten dute etorri direla. Zelaiak inguratzen dituen hesiaren azpitik sartzen ei dira.

ZELAN KONPONDU

Hala, bada, Salesan eta Zubialde baserrien zelaietan triskantza dezente eragiten dabilta. Eta kal-



Argazkian Martin Etxaberen zelaiko artoa ikusten da, janda eta zapalduta.

te-ordainak emango dizkiete bi baserritarroi. Hain justu ere, Oilogor ehiztari elkarteak hartuko ditu bere gain kalteok. Elkarteko presidente Eduardo Fernandezek kontatu digunez, Oilogor elkar-tearen eskuetan dago basurdeak dauden basoko ehiza-babeslekua.

Ondorioz, elkarte horri dagokio kalteak ordaintzea. Gaineratutakoaren arabera, kaltetutakoekin harremanetan jarri dira, eta orain, aditu batek basurdeek eragindako kalteak peritatzeko zain daude, horren arabera kalte ordainak emateko.



Seinalea leku desegokian

Herritar batek leku desegokian dagoen seinale baten berri eman digu. Kontua da argazkian ikusten duzuen seinaleak eta errepideko markak agintzen duen lekuan STOPa eginez gero, ez dela ganoraz ikusten errepidean gora edo behera ibilgailurik badatorren. Hala, ibilgailua dezente aurreratu beharra dago errepidea garbi dagoen ikusteko; eta hori egitea arriskutsua da, parean beste ibilgailu bat agertuz gero istripua izan daiteke-eta. Are gehiago, behin baino gehiagotan gertatu da halakorik leku horretan. /U.M.

HERRITARRENHITZA/ Arantza Ibabe • Langilea

Etxebizitzaz eta beste piztia batzuez

Gaurko artikulua hau idazteko esan zidanean TXIRRITOLAKO ardura-dunak, ez neukala gairik burrunbaka barruan esan eta ideiarene bat edo beste emateko eskatu nion. Baliteke, lehengo astean hemen Manexek esan zuen legez, lokartzen hasia egotea...

Gauzak horrela, ideia guztien artean, etxebizitzena izan zen gehien gustatu zitzaidana. Bai, izan ere, astakeria larregi entzuten ez ote gabiltzan pentsatzen hasia naiz. Bai, nire generaziokook eta baita aurrekoak eta ondorengoak ere, komodoegiak garelako eta eroso bizi

garelako ez ei gara independizaten. Nik, ez diot arrazoirik ez dutenik. Denetarik egongo da. Baina horrek arazoa tapatu besterik ez du egiten. Etxebizitzaren prezioa beldurgarria da eta inork ez du ezer egiten.

Gaur egun etxebizitza bat erosteak bizitza osoa hipotekatzea esan gura du. Gehiengoak egiten du. Horren kontura gutxiengo bat hor dabil aberatsa baino aberatsagoa egiten. Sikiera



"Etxebizitzaren prezioa beldurgarria da"

Hauk ote dira Manexek bere artikuluan zioen sehaska kulunkatzen duten batzuk? Besteen bizitza maneatzea gustuko dutenen horientzat

zoriontsuak izango balira...baina ez, urrezko grifoak eta sekulako autotzarrrak edukitzearen ez dira inor baino zoriontsuago. Haatik, hori guztia eta aberaskeria, bai aberaskeria eta ez aberastasun, gehiago izateagatik gehiengoaren bizitza hipotekatzen dute.

Mario Benedetik dio, bakar-daderik ikaragarriena pairatzen dutela: euren burua ere ez dutenen bakardadea.

Manexen artikuluari irtenbide bat eman guran eta idazleekin jarraituz, Jorge Bucay-ren liburu batzuen azalean zera jartzen du: "ipuek umeak lokartzeko eta nagusiak itzartzeko balio dute". Beraz, ipuin dezente leitu beharrean gaudelakoan nago.

Bitartean etxebizitza erosi dutenek etxe bizitza egiten.

Barkatu Manex baina ez nengoen batere inspiratuta. Aitzakia ederra zure artikulua espazio hau betetzeko...

LABUR

Untzillako jaiak datorren asteburuan

Datorren barikuan, zapatuan eta domekan Untzillak jaiak ospatuko ditu. Barikuan, 19:00etan hasiko dira jaiak; 21:00etan, elkarteko bazkideek eta auzokideek afaria egingo dute. Zapatuan, 12:00etan auzoko hildakoen aldeko meza egingo dute, eta ostean, Aierbe abizpen trikiti saioa izango da. 17:30erako ume jolasak antolatuko dituzte; 22:30ean dantzaldia eta 23:00etan Bolo Txapelketa. Bukatzeko, domekan, 12:00etan meza nagusia izango da, Santa Agedako abesbatzarrekin; eta 13:00etan Vermouth dantza, Gardokirekin.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zujiako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:10	20:25

OHARRA: izartxoia duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deltu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

IKASGELA MUGIKORRA

Araba, gure ondarea izeneko kanpainako ikasgela mugikorra Arabako herri guztietan ibiliko da, herrialdeko ondarea erakusten. Hala, urriaren lehen eta 2an Bañera parkean izango da eta urriaren 3an Azkoagako parkean. Orduetgia honako hauxe da: 12:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:30era. Besteak beste, Arabako azpiegitura hidraulikoak, errepideak, eraikitako ondarea eta kartografia ezagutaraziko dute kanpaina horren bitartez.

ZINEMA

Oraino astean *Operación Trueno* izeneko filma emango dute. Zapatuan izango da, kultura etxeko zinema aretoan, 22:00etan. Horren harira, gogora ezazue zapatukoa izango dela udako zinemaren azkeneko saioa. Arduradunek esan digutenez, urrian ez da zinema saiorik egongo, eta azaroan neguko zinema ematen hasiko dira; hain zuzen ere, filmak domeka arratsaldeetan emango dituzte.

Anbulatorioko zerbitzuak modu zuzenean zelan erabili

UBANE MADERA

Hirugarren urtez, ambulatioaren erabilera zuzena bultzatzeko kanpaina abiarazi du Arrasate-Aramaioko anbulatorioak. Besteak beste, gogorazi gura dute lehen mailako atentzio zerbitzuetarako hitzordua hartu beharra dagoela alde zuzenetik.

Eta, txanda alde zuzenetik hartu beharrez gain, txanda hori goizez zein arratsalde zuzenetik erabili gogorazi gura dute.

Anbulatorioko arduradun Edurne Marañonek adierazi digunez, kontua da txanda hartzeko erabiltzaileek goizez bakarrik deitzeko ohitura dutela. Horren ondorioz, dei larregi jasotzen dituzte goizean, eta telefona

saturatu egiten da.

Beraz, gogorazi gura dute egun osoan dei daitekeela. Are gehiago, gomendatzen dute medikuarengana biharamunean joan barik bizpahiru egunera-edo joan behar izanez gero, txanda arratsaldeetan hartzea. Honako hauxe da erabili beharreko telefono zenbakia: 945 44 53 40.

Lehen mailako atentzioetan honako zerbitzuok sartzen dira: medikuntza orokorra, erizaina (froga osagarriak egiteko: elektrokardiogramak, espirometria eta analisiak), pediatria, emagina eta dentista.

MEDIKU ETA ERIZAIN BANA

Aramaioko anbulatorioan mediku eta erizain bana daude zerbitzuok emateko. Hori bai, zenbait zerbitzu erabiltzeko Arrasateko anbulatorioa joan beharra dago. Hala gertatzen da espirometria frogak egiteko, emaginarengana joateko eta dentistarengana joateko. Pediatrari dagokionez, astean behin bisitatzen du Aramaio. Edozelan ere, pediatrarako Arrasateko anbulatorioa joateko aukera ere badago.



Zerbitzu batzuetarako, Arrasateko anbulatorioa joan beharra dago.

BOTEPRONTOAN/ Mertxe Elortza · KZGuneako arduraduna

“Nahi baino jende gutxiago etortzen da KZGunerara; jende gehiago etorri beharko litzatekeela uste dut”

Legazpikoa jaiotzez, bost urte daramatza Mertxe Elortzak Aramaion bizi izaten. Ingeniaritza Tekniko Informatikoko ikasketak ditu eginda, eta herriko KZGunea zabaldu zutenetik hango arduraduna da. Hori bai, laster utzi beharko du leku hori, haurdun dago-eta. Edozelan ere, bien bitartean, KZGunearen gainean jardun dugu:

Badirudi KZGuneak hartu duela nolabaiteko abiada, ala?

Nahi baino txikiagoa. Jende gehiago etorri beharko litzateke. Batez ere jende nagusia dator; 30 eta 55 urte arteko herritarrek oso gutxi etortzen dira. Eta horiek baino gazteagoak ikastaroetara etortzen dira, baina ez nabigatzera. Bakarrik egoten naiz...

Orain, hil bukaerara arte oinarritzko Internet ikasteko aukera dago, ezta?

Bai. Urtarrilera arte hori emango dugula uste dut. Izan ere, oraingoz etorri den jendeak ez daki zer den ordenagailu bat. Hortaz, ikastaroa hortik hasten da: ordenagailua zer den erakutsi, poliki-poliki, eta gero Internet erabiltzen ikasi. Ikastaroak 20 ordu ditu, eta norbaitek pentsatzen badu ez dela nahikoa izan, berriro egin



“Talde moduan irabazi asmorik gabeko web orriak egiteko aukera dago KZGunean”

dezake ikastaro bera.

Hortaz, jende nagusia etorri da orain arte; zein adinetakoa?

50 urtetik gorakoak. Bi lagun gazteago izan ditut, baina gehienak 50 urtetik gorakoak dira. 80 urteko ikasle bat eta guzti izan dit.

Eta holakoak zelan konpontzen dira?

Arazo handiena saguarekin izaten dute. Ez dute ondo erabiltzen. Klik egin behar dutenean ihes egiten die. Eta ito egiten dira, larritu. Sagua ahalik eta gutxien erabiltzeko bideak aurkitu behar izaten ditugu, hasieran, behintzat. Gero, denborarekin lortzen dute erabiltzea.

Zerk harritzen ditu gehien?

Harritu ezerk ere ez. Ilusioa dute. Ikasteko ilusioa. Adibidez, Interneten nabigatzen dutenean poztu egiten dira.

Eta 80 urteko emakumea zelan ibili da?

Ba, adibidez, posta elektronikoa erabiltzen ikasi genuenean, ez zion jaramon handirik egin, eta nabigatzen ibili zen, bakar-bakarrik. Gustatzen zitzaizkion webguneak aurkitu zituen eta haietan ibili zen nabigatzen.

Ikastaroak egiteaz gain, zer gehiago egin daiteke Aramaioko KZGunean?

Nabigatu, posta elektronikoa erabili... Internetekin lotutako edozer. Hori bai, 18 urtetik gorakoak bakarrik etor daitezke. **Etorri gura duenak zer egin behar du?**

Udaletxean edo hemen bertan izena eman. Erabiltzaile pasahitza ematen zaio eta gero posta elektronikoko kontu bat, hura erabili gura badute.

Zer esango zenioke oraindik etortzera animatu ez den horri?

Argi izan behar dutena dela ikastaroa zero-zerotik hasten dela; inor ez dela gutxiago; etorri gero, seguru ikasiko dutela zerbait. Eta ikastaroen taldeak beti joaten direla azkenaren erritmora.

Bestelako herriekin konparatuz, Aramaion jende gutxi etortzen da?

Bai. Otxandion, adibidez, jende kopuru bikoitza dator.

ERRETRATUZAHARRA

Lan Kide Aurrezkiak euskararen alde


Euskara babesteko eta bultzatzeko makina bat ekimen egin dira urteotan gure herrian. Orain ere egiten dira, jakina. Baina antzinako kontuen tartea izanda, denboran atzera jo, eta 1977ra iritsi gara, halako kanpaina baten adibide bila.

Kanpaina bitxia aurkitu dugu, eta bere sasoiaren nahiko polemikoa izan zena. Ikusten duzuen moduan, Lan Kide Aurrezkiak abiarazitako kanpaina da. Izan ere, Lan Kide Aurrezkiak bere nortasuna garatzeko hasieratik izan zuen kontuan herri honekiko konpromisoa. Hala, 1973. urtean enpresaren izena euskaraz ipintzeaz gain, euskarazko testuak memorietan sartzen hasi ziren.

Edozelan ere, 70eko

hamarkada baino lehen erabili zuen Lan Kide Aurrezkiak euskara lehenengo aldiz. Hain justu, 1964an, euskarazko materialen produkzioa ia pentsaezina zenean, Lan Kide Aurrezkiak kartel elebidunak atera zituen sukurtsal berriak iragartzeko. Handik aurrera, bide beretik segitu zuten, gaur egungo egoerara iritsi arte. Bide luzea egin zuen. 1972. urtera arte ez zen euskaraz ezer egin; orduetik 1992ra arte gaztelaniak %70eko lehentasuna zuen. Eta 92an lortu zen bi hizkuntzen arteko oreka handiagoa. Gaur egun, adibidez, kutxazinetan euskara hutsa erabiltzeko aukera dago.

Argazkia eta informazioa:
Kooperatiba eta euskara liburua
Urtea: 1977



Gure lantegietan ere Euskaraz.

EUSKARA baskon hizkuntza dela uste duteak ba da oraindik ere. Baina, nire euskarazkoak bi. Kalean bizi gara. Beraz, gure kateak EUSKALDUNGU behar ditugu. Lantegiak, eskubideak. Olatuko FACOR INDUSTRIALen egun duten betala, makina izenak, lantegiak, bulegoak, zerbait orokortu, aldagatik etab., euskaraz ezarri. Folklora baskoniarako loturak eguzkerotako izentzeri: maila gutxiakak ekarri eta egokituz. Izan ere, EUSKARA BIZI BAIT DA, eta zorianoz bizi.

Euskara indarberitzearen alde
CAJA LABORALEko gizarie ekintza saila.



Caceresen jaioa, eta orain Euskaldun osoa.

Legez Francisco TEJADO da. Sana PATXI TEJADO duden dute lagun, eta ezagun gurtzek. Beste askoren antzera, bostak bostak baten esperantzak EUSKALDUN osoa. Eta bostak bostak gaitzak erabaki. Patxi, berehala izan du euskara. Eta... areago gaitzak. Beste euskaraz bertan bostak bostak dabil bostak bostak. Bostak bostak bostak bostak. Olatuko euskaraz izan ez duten Euskal Herriko 'Vasco' askok ba dute non joan.

Euskara indarberitzearen alde
CAJA LABORALEko gizarie ekintza saila.

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Ganorazko pilotalekua: Uarkape

Urte askoan izan dira Arrasateko pilotari eta pilotazaleak ganorazko pilotaleku baten zain. Iturripeko eta Musakolako pilotalekuak ez ziren Arrasate moduko herri batendako nahikoa, eta ezinezkoa zen pilota jaialdiak egitea. 1999ko Santamasetan inauguratu zuten pilotalekua, eta orduetik hona, kirola egiteaz gain, beste ekitaldi asko ere egin dituzte Uarkapen.



≈ 1999 Pilotaleku berriaz gain, Uarkapeko etxe berriek ere dezente aldatu dute Otalora lizentziaduna kalea.



2003 Astean barrena hainbat kirol talde entrenatzen dira pilotalekuan. Horrez gain, herritar asko joaten da hara, eskalatzera edo pilotan egitera.

Monte taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

EGUZKIGRAF →
inprimategia

Industrialdea F-0-4
Tfnoa: 791844
Faxa: 792941

ARETXABAETA

LAKET

Bonaventure Diesel
Pepe Levis

Otalora z/g Behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72

Gorka ileapaindegia peluqueria

Orduetgia:
Astelehenetik-ostiralera 09.30-20.00
Larunbatetan 08.00-14.00
Ferrerrias 35 - 943 77 13 78

**LORE GAZTEA eta ARROZTAITZ TXIKITXU taldeen
aldeko PINTXO EGUNA**

ARRASATEko Enparantza Nagusian

Igandea, 2003 - 09 - 28

Arratsaldeko 19:00

Antolatzaileak

Agirre-Etxe Harategia
Zarugalde, 33

J.Elorza Harategia
Juan Bengoa, 1

Gorka Harategia
Merkatua, 15. postua

J.R.Otamendi Harategia
Olarte, 13-B

Kajoi Edaritegia
Erdiko kale, 20



Zer jan, hura izan!

GIDA 04 **abian!**

Telefono berria jarri baduzu

edo aldatu baduzu,

deitu 943 71 23 91 zenbakira edo bidali

ondorengo helbidera:

publi@goiena.com

Gida Komertziala,

zure eskuetan!

Informazio gehiago:

943 71 23 91

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

Emakume txokoa



Zatoz eta parte hartu!

HITZALDIAK

Urriak 1 - Asteazkena

Hitzaldia: "Bikoteen legea"
Hizlaria: Elena Olaortua (ALDARTE)
Ordua: 19:00etan
* Euskaraz

Urriak 15 - Asteazkena

Diapositiba emanaldia: "Tibet-Nepal, Amets urdinaren enkuentrora"
Hizlaria: Agurtzane Ugalde
Ordua: 19:00etan

Urriak 17 - Ostirala (arratsaldez) eta 18 - Larunbata (goiz eta arratsaldez)

AUTODEFENTSA ikastaroa emakumeentzat
Izenematea: urriaren 15era arte

Urriak 22 - Asteazkena

Bideoforuma: "Mujer contra mujer"
Dinamizatzailea: Ana Ureta (ALDARTE)
Ordua: 19:00etan

Urriak 24 - Ostirala

Hitzaldia: "Emakumea eta Osasuna"
Hizlaria: Mari Luz Esteban
Ordua: 19:00etan

Urriak 29 - Asteazkena

Feminismo Eskola Gaia: "Emakumeon parte-hartzea gizartean"
Dinamizatzailea: Arantza Urkaregi
Ordua: 19:00etan
* Euskaraz

Urriak 31 - Ostirala

Antzerkia: "Las punkis también lloran"
Taldea: Detritus Teatrus
Ordua: 19:00etan

IKASTAROAK

'TAI CHI'-A

Astelehenetan
Ordutegia: 18:30 - 20:00

AUTOESTIMUA

Astearteetan
Ordutegia: 18:00 - 20:00

ARTE DEKORATIBOAK

(Esku lanak)
Asteazkenetan
Ordutegia: 15:00 - 17:00

SALSA

Ostegunetan
Ordutegia: 15:00 - 16:30

DANTZA AFROBRASILDARRAK

Ostegunetan
Ordutegia: 18:00 - 20:00

IZENA EMATEKO:

Telefonoa: 943 79 41 39.

Arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara.



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Emakume Saila ■

